Zezbitzaizi

SYNODE DIOCESAIN
SECRETARIAT PAYS BASQUE
16, Place Mgr Vansteenberghe

SYNODE DIOCESAIN
SECRETARIAT BEARN
78, Avenue Trespoey

POUR DEMAIN
UNE EGLISE EN SYN

(1)



Elizáko zerbutchái handiák

Eniz mintzo bettérrez; hoik gazte dia, tchipi, eta kasi ourthe óroez khanbiatzen. Badia bèste zerbutchaiak, jente handiak, parropian ountsa ezagutüik dienak: giltzagna, chantria, zegnuzagna eta eliza seoá.

Herri handietan, giltzagna bethi berra da, bena uchkal herriko herri tchipietan, familia bakhotchak, aldizka eta ourtheka egiten du giltzaingouá. Batian gazte bat da, eta houa aisa badabila, hatsarrian amignibat patotch izanik e; bena gizon adinekó bat bada, ezta hain aisa ebilten; urhatsak phezu, hanitch aldiz belhagna plegatzen lurra jo gabe, zogniaentako bezala; bena, hatik, houa e fite kostumatzen da argien phizteko, ehȧiteko eta khuutchiaen ~~eta~~ eabilteko. Haourrian ikhousten gunin, Asperges khantatzen hastian, giltzagna, khuutchia har eta apheza zoualaik jenter hour benedikatiaen ourthoukitzea, haen àitzinin jouaiten zela, eliza borthala artino, eta hantik arra utzultzen, bethi aphezaen aitzinin, geo khuutchiaeki egoiten betterraen saihetsian, Ostende nobis khantatzila artino eta ordian khuutchia ezarten bee lekhian. Geo, bazouen arrount sakrastignala, ekharten, oihal choui batez erdi thapatuik zen zae chabal bat, ogi bat, pharte chchekatuik, aphezak benedikatzeko althae aitzinin. Kontsekrazionetik beantcheago, zae houa har, eta

jenten oroen aitzinian igaiten zen, bakhotchak mouchinka bat benedikatuik har beetako, eta beste zounbaik etchekouentako edo haourrentako, oroek khuutchiaen zeinhaia egiten eta han beian jaten. Zounbaitek hatik, apheza komuniatzian haen komunionian pharte hartzeko bezala.

Hatsarrian, Klarda, giltzagna etzen kartakan bezain trebe. Phentsa! sóginez, giltzain berria zenian, haat hounat zabilalaik, agei zen thorpe eta ahalke aide baleki zela. ——

Chantria beste da; haek eztu bee botz ederraen eakastia baizik, khantagiatik; bena kostumá beitu, bea izanik ala jenten ~~aitzinin~~ artian, bardin aisa aí da; eta hatik nouiz e beste khantai houn bat agitzen belzaio saihetsian, eztuke sobea maite bestia ai dadin bea beno hobeki. Ordían botza goitucheen du eta amigni bat hantuko. Badia aspaldiko ourtetan chantregouá egiten dienak, herriaen eskerrak ountsa meechi beitutie.

Zegnuzagna, beste zerbutchai fidela, Goizan, goizik elizá zabal eta argi zegniak emaiten tu, equérditan berriz, eta arratsetan, ulhun zegniak, herritarrak khumitatzen othoitze egitea, Andee dena Maiaen ouhatzea.

Igantetan, meza mezpeen aitzinin, lehen deia joiten du, eta zounbáit aldiz bestiak e; eta bestá handi bada, zegnu utzulia. Haen ondotik emaiten du arrapika alageá bat: tika tan, tika tan, tikatantantan, eta lehen ja arrapika hoi emaiten zin asperges khantatzian, Gloria in excelsis eta Magnificátian, eta oano

meza handi ondoko, Angelusetan.

Baganakin guk bertan, joiteko maneatik, nour zen joilia, ohikoua zenez ala beste zounbait. Bethi boztair da zegnu eder baten soniaen éntzutia, behezik bestá handi egunéz, elizalat huillantzian, harro harroua, ountsa beztituik.

Zegnia elizako botz handía, gochóua eta alageá; bena trichte e bai, hil zegnia bada. Jentia ordían ekhuátzen da, zegnhatzen, othoitze bat egiten eta aphur bat phentsamentukatzen: ene aldía?...

Beste elizako zerbutchaï houna, bee buía guti eakatsiik e zeremonietan, oihuik ez elheik gabe; eliza seoá. Ichil ichila haek egiten tu elizako lan handiak: elizá chahatzen, kaideák bee lekhíetan ezarten, liliák, dien denboan, floka ederrez althaíak beztitzen, oihalak chouitzen, ornamentiak plegatzen, urratiak josten, althaiak eta althae aitziniak, miailla bezala etchekitzen. Zounbat lan! ichil ichila, eta kasi bethi, ihoiie ganik eskerrik ukhen gabe. Badaki so egiten, eiá arropak ountsa egoiten dienez aphezai eta betterrer, haourren chothana gorria ountsa denez, suberpleizak plegu chehez ountsa eginik. Oroi so da, eta arrazoueki, nahi beitu oro planta hounian joun ditin.

Besta berri egunekö, oro prestatuik ezái tu, elizako eta prosesione denboako; mouthiko parrastá bat, better gisa beztituik, bakhotcha ezko zae tchipi bateki, arrusa lili óstoz betheik, sakramentu sáintiaen aitzinin, emeki emeki

ourthoukitzeko. Ethal badu, hala hala, neskatchouna saldochko bat, chouiz beztitúik, houak lili ourthoukitzen. Eliza seoá orotako han, gaizén ezárten Kanpóuan, prosesionia ekhuátzen den lekhíetan, ekhi ~~saiti~~ saintiaen phaousagiétan, eta lagun beharra badu, hen gidatzeko.

Ezta segur estonatzeko, egin badie eta emaiten halako zerbutchaien, Mérite Diocesain delako medellá, pheedikú eijer bateki, egin dutien lanen erremestiatzeko.

Zer nahi izanik, heben ezpazaie hainbeste zerbutchu eta meechimentu ountsa ezagutzen eta sáistatzen, Jinkouak emaiten doie, hen lánaeki ukhen din ouhouíaen phákia.

Lúrraen eta lúrrekouén hastapéna

Nouiz eginik eta adelatuik izan den gu bizi gien jaouegia, erran nahi beita lur haou, ezta jakiten ahal. Jinkouaen lana da; bea zen, jentéik ihoue ikhoustéko. Echerkhatzen eaountsi dienak, hanitch gisaz mintzatu día, eta haboochiek erran, lurrak, oai den hégnila héltzeko, hanitch ehun mila oúrthe igaán tila, beharbada milioukaz; bena ezta báte estonatzeko, zen eta Jinkoua bethi izan beita. Ezarten ahal zin ~~eta~~ hortako nahi zin denboá, zounbat nahi miliou izanik e, haentako ezpeitia deuse, ez eta gouetako e, egun bat, edo oen bat bezala e. Echerkhazalék izigarri desbardineko denboak ezarten beitutie, eztitake bate hetan fida. Segurrena eta chuchenena da, Moïsek errandina, Biblian iakoúrtzen duguna: Jinkouak sei egunez gaizák oro prestatu dutiala. Oai, zer zien egun houak, eztakigu; bardin da, hatik, miliou ~~ak~~ ourthetakouak izanik e, Jinkouaentako ezpeita deuse, haen photeiak ezpeitu bazterrik, denboa luzaz bezala, gaizak agerrazi ahal beitutu denboa illaburrez, eta hen goabeheakak egineazi bardin aisa eta bardin fite.

Nounti nahi den, badakigu, lurra lehenik houez unguatuik egon dela, oano e hanitch lekhutan itsaso heechak mendietan goa agei beitia. Geo, izan da argía, argia bea, izarrik ez ekhíik gabe, lúrrai ungúu zen lanhou lodíaen hourteazteko.

Bigerren egunian Jinkouak hourak behezi zutin, gagnen utziz ozéiak eta houra lurrian. — Hiaugerren egunian Jinkouak erran zin: ager dezagun lurra eta ekhar dezan belhar eta zuhaintze, bakhotcha bee aziaeki; eta noula, ber denboan, izan beitzen beo handi bat, lur oroetan bardin, alphóo handi haeki, oro handitu zien, iatziak ~~eta~~ e zuhaintziak bezala goa, zen eta badakigu, argiaeki belharrak eta zuhaintziak lanian ai diela, berde phartiaen egiteko, azkartzeko eta handitzeko. Zounbat denbóa iáin du beo handi haek? Ezin jakin. Eta hatik, ikherzalek ezagutu die hala dela, zen eta, oai hotz dien eemietan, edin beitéa, ordunko zuhaintze suberteen troinkouak, edo arrastak, oai holakoik ezpeita lurreko lekhu beouénetan báizik. Geo, izan diade pialagáinkatze edo piazgoátze handiak lurraen gagnen, oihan hétaik hanitch lur pialat joun, han gogortu eta inkhaztu, lur inkhatza hétaik horra betzáiku.

Laougerren egunian, Jinkouak bildu zin argia izarreta, ekhiala eta argizagiala, nahiz argizagia ezten miail bat báizik, gaiaz ekhiaen argitik goui zerbaiten igorteko. Hourak bee mugetaat sarerziik, argia bilduik eta lurra berdez beztituik, alimale zounbait dejá bizitzen ahal zen.

Bostgerren egunian, Jinkouak erran zin: hourrek eman dezatela, arrain, suge eta tchoi suberte órotaik, eta agertu zien hóuian bizi dien arrain eta alimale handiak, suge

herresta dabiltzanak, eta tchoi suberte órotaik, hánitch erdi suge eta erdi hegaltái, moskóuan hórtzeki eta lumen phartez lárru mehé bat, oaiko gai ainheak bezala.

Séigerren egunian, Jinkouak erran zin: lurrak eman dezala alimale suberte órotaik, eta ordian agertu zien oai ezagutzen tugun kabaliak eta bestaik, oai gálduik dienak, tchipiak eta zounbait izigarri handi, ezpelitake sinhets, hen ezurrak ezpalía edín. Ameiketa gagnian, bat, Diplodocus deithu diena, hoitaláou metra eta erdi luze, suskerraen uduiko zankhouaki, lephoua luze, eta buia tchipi. Ukháitzetan eta ichtil handíetan laket izan behar zin, arrain jaten, geo buia goiti ezaiik, aide hartzeko. Igouanodon, suskhandea gisa, berrogei métrata heltzen zátekin zounbait aldiz, zen, Argentinan, Buenos Airesetik beheago, Patagoniako phartian edin die azpi ezur bat, bi metra eta erdi luze eta gizon baten khorpitza bezain lódi, eta, bizkar ezurreko pharte bakhotcha, atabal baten hégneko (un tambour).

Anglatérran eta Belgican e, atzaman die holak ezur, bena tchipiago; Holandan, Maestrik-eko lurretan, eta hanko harri idokigía batetan, suge baten ~~ezurra~~ buu ezurra, metra bat lúzekoua. — Ameiketa gagnian, beste bat, ~~brontaza~~ brontosaure deithu diena, hogei bat metra luze; khorpitza hándi, nounbait hoitahamar mila kilo phezu; gibeleko zankhó baten heechák bazutin laouetan hogei eta hamar zen-

metra luze eta largo (90 centimètres). — Beste holako alimale batek, bazin, buutik eta buztanila, oillouen kukulá uduíko ezur hegi bat, oro phunta zorrótzez bethéik, eta buztana, hala hala, bi herrokatan, phunta izigarri zorrotzak.

Argentinan oano, Pampa ordokian, bizi zen gliptodonte deithia, idía bezain handi, bena bazin buian eta bizkarrian, saihetsetan behea, larru bezala, ezurrezko estalgi bat. Laou metra luze zen, eta buztana ezurrezko argoilla elibatên barnian; buztan ondoko argoillá bea, barriká baten kurkuía bezain handi. — Hangáinti bizi zen oano, Megaterio deithía elefanta bezain handi. Bazutin aitzineko zankho phunttetan hiou azazkulu, luze, lodi eta zorrotzak, aldiz gibeleko zankhouetan azazkulú bat báizik ez, eta houa hiougerren ehian.

Bada Africa hortan, rhinoceros deitzen den animale bat, ez izigarri handi, bena phezu eta larria eskú bat lodi, eta muthurraen gagnen adar zorrotz bat edo biga. Holako animale baten ezurrak edien dutie, Indiako gáintian; laou metra goa zátekin.

Dinotherium erraiten dien elefantak bazutin bost metra goa eta sei eterdi luze, lurrekouetaik handiena. Elefantek badutie bi hortz, basourden lethaginak bezala, lodi eta luze. Oano berri, Zuizan, gaàilla elkhiten ai zien lángilek, edin die, harri artetan, holako elefant hortz bat, hiou metra eta hoitabamar zentimetra lúzekoua (3 m 30), eta ehun kilo phezu. Holako, ez bat, bena bi hortz ekharten zutin ihizia! Aiei!

Rusia gagneko eemu hótzetan, eztu izigarri aspaldi, edien diela Mamout elibat, hoik e elefantak, kharróuian konserbatuik, larru, ilhe luze eta aagiaeki, bizi denboan bezala, eta enoustez aagia nourbaitek tchestatu nahukhen zin. — Izan da, bai, beste gisakoik e, oai oro galduik beitia. Ihize hoik hatik been artian bilhachtkan edo gudukan hasten bazien, zer etzen ikhousiko! —

Bazien tchoi subertetan, hegaletan ebilten etzienak, lurrian bizi zienak autrucha bezala, hiou laou metra goakouak. Madagascar lurrian, epiornis deithu diena, eztakigu zer hegnetakoua, bena haen arraoutziak, edeiten omen zin zortzi boutilla hour; mouleta propi baten egitekoua, hots!

Azkenian, oro prestatu, jaouegia egin eta edertu ondoúan, Jinkouak egin zin náousia.

Jentiaen agertzeko mementouaz e, zer eztie erran sabantek. Zounbat mila ourthe eztie eman! Hamar, hogei, berrogeita hamar mila eta habó e. Zertako? Zen eta bazterretan atzaman beitie, lurretan eta kharbetan, harrizko tresna hanitch, eta ordian ouste eta erran, ourthe denboa izigarria joun zaiela ountsa bizitzen ikhas ártino. Bena, ezta erraiten ahal. Gu jóuiten bagia ezagutzen eztugun óihan edo zokhó batetá, deuse egimik eztén lekhiala, eta han bizi behar badugu, egin beharko dugu oihalezko edo sargázko etcholá bat, edo tcherkhatuko harpé bat, atherbe, ukheiteko

~~Atherbe ukheiteko~~, ahal bezala bizitzeko eta alimale básetaik begiatzeko. Hoi, eta hoi bena habó igaán zen, jentiak haat hounat bazterretaat lehen altian jouáitian: Kartielak ez ezagútzen, herriik ez, etchéik ez ihouné, deuse lánthuik edo éegnik bizitzeko; bidéik ez, laneko trésnaik ez, bazterrak animale-basaz bethéik eta hen kountra harri, makhila edo garróte baizik ez. Ordian, aisa da koomprenitzia, bizi ziela hatsárre hártan, bórtchaz, edo etcholá eginik lúrrian, edo kabana zuháintzetan, edo harpétan jarriik. Bardín etzélakoz trésnaik, hasi ziela egiten labela, achkóa, háitzur eta bestéik, suia emaiten din silex harri gogórrez, edo oáno kabale adárrez, burdugná lurpían atzáman artio, haeki egiteko tresna hobiak. Ordian, bizi zien, hangáinti, zuháintzetako fruituz, arrántzuz eta ihizékaz. Hoi zen bazterrétaat jouáiten zien óroen izátia. Eztu horrek erran nahi, jentia agertu denetik ~~oan~~ oai ártino izigarriko ourthe herroká igaán dela. Zounbáitek dioie, jentía izan dela lúrrian ehun mila, berrehun mila ourthez, edo habóo; bena gaizá bat bada: ezta edin jente heechaik sei edo zazpi mila ourthez goiti. Ordian, noula sinhesten ahal da, jentia hainbeste denboaz bizi izánez, heechaik bate eztiela utzi?

Eztu oáno aspaldi, berrogeita hamar baten altian (vers 1900) Ameikétan, Mexikakako zokho batetan, edien dutiela, indi-

(ano)

familiák, harrizko tresnak báizik ezagutzen etzutienak.

Oano! Eta ordian!

Bibliak erráiten deiku Jinkouak gaizák ~~urhentu~~ zutila zazpi gerren egunian eta ikhousi zila oro ountsa ziela; geo phaousatu zela; bena bibliak ezpeitu erráiten zazpi gerren egunak bazutila goiz bat eta arrats bat, arrats houa ezta oano héltuik, eta gu baqouátza aitzína egun hártan.

Nouiz artino? Hoi Jinkouaen segretia.

Notes. — Il faut se défier des systèmes, car, généralement on n'y cherche qu'à discréditer la Bible, la trouver en défaut comme les Juifs à N. S.. Les sans-Dieu prétendent tout expliquer à leur façon (les nier): Allemands, russes, etc. (Carl Marx...) — Mais la raison, la science, et les découvertes en toutes choses prouvent que la Bible a raison; elle dit la vérité. — « Rien n'empêche, dit l'Abbé Hamard, archéologue, que l'âge de bronze ait pris fin seulement quatre siècles avant Jésus-Christ, et l'âge de pierre 6 à 10 siècles avant; nous n'avons nul besoin d'élargir les bornes de la chronologie traditionnelle, puisque d'après la traduction grecque il s'est écoulé environ 30 siècles, du déluge à l'ère chrétienne. En supposant qu'il a fallu 7 à 8 siècles pour que la race de Noé se répandit jusqu'à l'Europe occidentale,

l'âge de la pierre, s'il n'est pas antérieur au déluge, aurait pu commencer pour nos contrées 2.500 ans avant Jésus-Christ, et y durer plus de 1.000 ans. C'est plus qu'il ne faut pour expliquer le nombre, en réalité minime, d'armes, outils, en pierre, parsemés sur notre sol, d'autant que beaucoup de ces objets, nous l'avons dit, appartiennent à l'ère des métaux)) – (Hamard, archéologue).

Création de l'homme :.. 5.000 ans, 10.000, 100.000, 2000.000.

1° Comment n'a-t-il pas laissé de traces ? que depuis 6.000 ans à peu près ? 200.000 ans sans rien faire ? Or, tout est à la surface, rien en profondeur. — 2° Il aurait employé ces 200000 ans à apprendre à se civiliser ? Non, il n'a pas commencé sauvage ; l'expérience prouve que le sauvage ne monte pas ; il descend jusqu'à ses dernières limites. Pour qu'il se relève, il faut une race supérieure qui le soumette et lui apprenne, et alors on y trouve, mélangés, instruments de pierre, de silex, bronze, corne et fer, ... etc, etc, et entre les deux époques il y aurait eu un nombre incalculable d'années ?? Puis, ces silex, taillés avec quoi ? plus dur ? – D'après la Bible, fer et bronze jouent un grand rôle dès le commencement. – Ages de pierre, bronze, fer est une duperie inventée en 1837 par le danois Thompson, admise par les historiens sans réflexion, aujourd'hui abandonnée. – L'homme est contemporain des

animaux géants du 6e jour (7e selon les Septantes), puis il n'y a pas eu de nuit, ou catastrophe, ou révolution terrestre (déluge, bouleversements, catastrophe, tremblements, eau, etc qui aient changé la face de la terre.) —— 3° – Ces silex, et ossements mêlés aux mamouths ... etc, il a fallu des siècles pour leur disparition ? – Vous n'en savez rien ; vous le supposez. Mais pas besoin. Depuis les Egyptiens, 40 espèces d'oiseaux, ou animaux ont disparu. Depuis César, l'urus, décrit dans les Commentaires, le Cerf à bois gigantesque, que les nobles romains faisaient venir d'Angleterre pour sa chair très bonne. – Ce travail se poursuit toujours. – Les plus gros animaux ont disparu, péri les premiers, parce qu'ils étaient plus lourds, moins féconds, moins utiles à l'homme.

4° – Des milliers d'années pour cela ? Mais :
a) l'objet était-il réellement de l'industrie humaine ?
b). l'a-t-on trouvé en terre intacte de la part de l'homme et des éléments ? —— 3°) Quelle est l'âge de la couche en question ? Élévations, affaiblissements, refroidissements, catastrophes....
« Telle couche, dit Wagner, épaisse de 4 pieds, peut avoir été formée en autant de minutes que Morlot demande de siècles »

Donc pures hypothèses. — L'homme de la Bible et l'homme des géologues sont arrivés sur la terre le même jour.

On veut faire échec à la Bible, mais....

La chair est faite de chaux, souffre, phosphore, potasse, azote, éléments d'une poignée de poussière, observe Mgr Bougaud, puis c'est le vide, comme il conste de l'étude faite sur l'atome, car on y a trouvé le vide entre les noyaux. (observations récentes, 1945)

Tchostakák Uchkal Herrian

Hanitch gisatá jentia tchostakatzen da eta aspertzen; memento gochoik igaiten da elhestai eta pheedikái houner behá, edo khantaier, bada elizán, bada kanpóuan, kobla-kaiek dien gogouacki, malezia amigní bateki, khountatzen diénian edo drolezla zerbáit erráiten diénian erri eginedzteko. Tchostakatzen da, denboá igáiten eta einhétzen e bai, somietan, haat biltzen beita gazteiá, adinekoik e bai, gaizái phiko handiik ez eginik e; merkhatietaat hanitch aldiz jouaiten den bezala: ikhous ditzágun eta ikhous gitzén.

Igante zounbáitez, peko herrietaik ezagun da atabala eta banba handia, udui beitzéikun han friouínta handiak izan behar zéla. — Usiago ikhousten zena zen pelota partidá bat, zounbáit aldiz arrabotian, biazka, hiounazka edo buuz buu jokhátuz, eta noula jarráikitzen so egilek, udui beitzin beak bazouatzála haát hounát pelotáeki, kintze eder baten ondótik, esku zapártaz eta iabazliak laidátuz.

Zounbat aldiz blékan, eta usiago luzian, murruik gabe, esku huska, zounbait lekhutan ja, eta gu lakek saihetsétik sooz, miatuz noula botazaliák pelotá hurrun igorten zin, eta noula bestaldekouek arrafeatzen zien, eta, ahalaz, chicha hounak egiten. Eder zéikun ikhoustia noula bazouatzan batak eta bestiak, háa laster, houna laster eta jáouzi, pelotaen baatzeko eta ~~Kintze~~ ~~egiteko~~ [egiteko Kintze], adas eta joku.

Oai, eztia hanbat ai luzian, esku huska, arrabotian báizik. Hanitch lekhútan ai día, oai, arrabotian eta luzian, esku lárriaéki, edo, hobeki erraiteko, esku zaiaeki, manéchez chisterra. Hola, pelotá hurrunago heltzen da, phuntiek habo iáiten die, eta jokulaien adrezia agei da. Bada oano beste joku, lasterkaka; hougnez, zaldiz, Karrouchaz, mandoz, astoz, órotaik.

Chibeóuan batugu maskaadák, segur hoi e éder beitzeikun, gazten ikhoustia lehenecka moudala: tcherréoua aitzinín, espresuko makila bateki eskietan, dántzaz, Khégnuz, besten gidatzeko, eta zer lana! Haen ondotik laou Kukuilleo, arropa ederrez bestitúik, Kohá argí bat buian, laouek batetan berunguiak eta jáouziak emaiten beitzutien; hen ondotik zamalzagna, zamai falsu baten chefaouta gerrikouan. Haen dantzak eta adrezia eztitazke erran; ikhóusi behar da, bereziki godalet ardouen unguian egiten dutianak, godaleta iailli gabe; eta azkenian hougna e gagnez ezdiz, ichóui gabe.
Hen ondotik horra zien jaouna eta andeia, laboata, laboaisá, Kaoutéak eta besteik, eta óroek bazutien been ebil aldiak eta dantzak. Maskaadak jiten zienian, herrian besta zen, eta Kanpotiarren e bai, zen bazkal ondóuan etzien hanbat hégnian berriz dantzan hasteko.
Nóuiztaik nouizta, bazen han edo heben phastoual bat.

Plazán táoulazko seláoubi bat, unguian jentén järgiak, eta táoula hetan gágnen agertzen zen Salomón edo Aztiaje, edo Charlemagne, edo beste nourbáit, amignibat oaikotuik, arropaz edo lengouájez, edo oano Guillaume Alemaniako enperadora, buia goga, elhúa ózen, bee minichtro eta jenealeki, gerlaz mintzo, oro espantu eta mekatchu. —
Beste zoumbáit laketago zien ihízen, urriétan phu; urzokan, Kabaná bat noumbáit eginik, apéu bateki, urzóuen huillanteázteko. — Gisa hortan, bada, noun nahi, zerbait jentiaen tchostakatzeko, inganatzeko eta mousaen áhintzeko. — Bethi izan dia Chibeóuan dantzai famatiák, Manéchian áldiz pelotakai izigarri aiphatiák.

Oai diela kasi berehun ourthe bazen bat, Banka herrian, Percain déitzen zena, pelotakan óroen buruzagi, mendiaz bi gáintietan guti izan beita holakóik. Ai zen eskulárru tchipí bateki, ordunko moudala, bena bazin indar, begi kolpu eta adrezia lázgarria. Hatik noumbáit zerbait gris edo beltz egin beitzukin, bortiaz beste gaintia jo behar ukhen zin. Han zélaik, egúin batez, jákin zín, nourbaitek, bee herrian, nahi zienai partidá bat jokhátu zila. Partida egunian, behar zen thenoían, ichil ichila agertu zen Bankako plazán, jokhaldía eáiki eta partidá iabázi, aidez aide.
Urhentzilat, ikhousi, sógilen ártian, jandarma bat, haen

hártzea jinik. Azken phuntiaen urhentzian, pelotá-har eta igorri zeon, chuchen chuchena, boontiala, eta, houa lurrilat eor eta zentzordatuik zelaik, goue gizona jenten artetik igaán zen eta inomine ichtántian. hatia hountu eta mendia gainti Espagnalat arra utzuli. Han hil zen ourthe zounbaiten buián.

Oai diela berrogeita hamar bat ourthe, edo haboche, beste hanitchen ártian, izan da, Ahazparnen, bat izigarri famatia: Jean Erratchun, dit Darritchon, deitzen zen, bena etzen ezagutuik Gaskoina izénaeki báizik, haen etchondo-kouak biarno hegitik jinik zielakoz; oano e bada Ahazparnen otel Gaskoina. Pelotakái gaitza, oroen buuzági. Ai zen esku huska. Espagnoulek deithu zien behin Irun-eat, hankouen kountra aitzeko. Etzien dudaik hankouek iabaziko ziela, gizon lodi, phezu eta tholdo aide bateki zenai, udui beitzín pelotakako beno lur haitzurtzeko eginik zela; eta nouka orthóintsik ai beitzén, plazála ourthóuki omen zien datchéta tchipi parrastá bat. Baték dioié ezagútu zila eta erházteazi, eta bestek dioié, eaountsi, deuse izan ezpaliz bezala. Partidá hási, eta Gaskoinak nahi zin bezala aitzina eáman. Artetaik, chahakolik edaten zin, ez ardoú, bena salda houn bat, eta azkenian aidez aidez iabazi. Geo hatik, behar ukhen zin Frántziako mugá fitechko igaán, espagnóulak khechu errabián beitzien, jokhatu sosak

oro galdu zutiélakoz. Zer pelotakaia! Zer begia! Arrafeako kólputik bazakin pelotá nóua jouánen zen, eta haen eor lekhia zankhoúaz chahátzen omen zin.

Oano guti, bizi zen e pelotakai famatu bat Chikito Khanbokoúa, esku huska, eskularruz eta hobeki esku zaiaeki. Badugu oano Urruti Donaphaleutarra chichterraz buuzági. Espagnako gáintian, plaza zabalian, esku huska, náousi da, aspaldiko ourthetan, Atano hiougerréna. Botatzian, igorten du pelotá, ez kasi gerrikoua beno goago, berrogei metra húrrun, arrafeak oro biltzen, eta, esku kolputik ezin jakin pelotá nouat jouanen den. Han gainti, basa gathía deitzen die, udui beitu houa bezala plégatzen eta jáouzten dela. Badoúa béthi bounét handi bat jáountsiik, eitarzún baten gátik, bilho haboochiak gálduik beititu.

Agoták

Bada Uchkal herrian, hanitch lekhutan, Agota jentén entzutia eta zerbait ohitzápen: edo etche, edo eliza bortha (Zihigan), edo Kharrika bat Donaphelun bezala, Agoten Kharriká deitzen zena. — Zer zien Agoták, edo noúntik jinik zien? Foríntsian, eztakigu chuchen. Etzien oaiko erresouma aizokouétako jentétaik; etzien e ezagu-tzen dúgun bouháme Kastátik, Dona Jouhane Zubíen Kazkarrotak déitzen dutie, arráin saltzez bizi dienak, ouste-phu houak berrak diela. Oai hátik, itsaz bazterretako Kazkarrotak salbu, Agotáik ~~ez~~ ezta habó ~~bestétan~~ bazterrétan. Behéz bizi zien, been ártian ezkoúntzen, hebenkouéki ez nahasten. Elizán bazien lekhu behezia eta bortha edo sargia behezia. Zer nahi izanik, jente aupliak eta lángiliak izan behar zien, jente ederrak e bai, Khantóak dion bezala. Bena noúntik othe horra zien? Gouetako ezta dudáik, Espagnako hegi Khantian bizi ziénez gagnian, Espagnatik horra ziela. —— Badakigu, noula, oaí diela nounbait mila eta bostéhun ourthe, Europa gain hortáik, hounat behea jin ziela jente berri aldía parrastá bat: Alaman, Frantsés Burgondes, Goths, Visigoths, Vandales, eta bestéik hánitch, hebe-gáintiko lurrak hobe ziélakoz, eta aidia gochouágo; batak bestiak heben ekhuatu, lurrak hartu, lanian ikhasi, eta oozbát ekhuátu.

Gisa hortan sarthu zien Espagnan eta Gotak eta Visigótak han ekhuatu, geo oro Gotak déithuik izan bestia; han laboántchan hási eta e laboantchái aitzinaméntu éman. Hautik beréhun bat ourtheen buian, jente aldía berri bat agertu zen Afrikako gáintian: Arabak. Houak e eemu houn tcherkhatzen ai beitzien, eta Espagna eder zela ikhóusten, Afrikaik Espagnalat jáouzi zien, Gotak góithu been erregiaeki, eta beentako hartu lur hobénak eta habouenak. Jagoiti, Gotak Araben eskupeko egon behar ukhen zien, bena phentsatzen ahal dugu, ez oro oro. Ahal ziénak, noulopáit, mendi zorrótzen ártetaat joun zien, eta, hala hala, zounbáitek Frántziako hegía góiti igaán, eta, bizitzeko, plan-tatu ahal zien lekhietan, eta han bizitu, behéz, denboáeki, aphúrtu eméki eméki eta azkenekoz galdu, ezpeita badu ohitzapén bat báizik, eta hóua e kasi gálduik.

Hórrek izan behár du Agotén ichtóiak, bena Khantóiak ~~ezagutazten deitu~~ ezaguteázten déiku hobéki noulako zien.

Agotén Khantóia

— 1 —

Argi azkorrian jinik ene arréseKila,
Bethi behá éntzun náhiz nounbáitik zoue bótza
Ardiak noun utzi tiitzu? Zéntako erráda
Nigárrez ikhóusten déizut zoue begi ederra?

— 2 —

Ene aitáen ichilik jin nuzu zoue gana
Bihótza erdiatiik zihaoui erraitéa,
Khanbiátu deitadála ardien alhagiá,
Sekulákoz defendatu zoueki mintzatzea.

— 3 —

Gor niza? Hala entzun dit? Erran deitadazia
Sekulákoz jin zaiztála adio erraitéa?
Etziadia ohitzen, guk hitza eman dugula?
Lúrrian bizi gieno alkharren maithatzia?

— 4 —

Atzo nourbait izan duzu ene aitametaa
Guk alkhar maite dugula heién abertitzéa;
Hurrunteáztez alkhar ganik fite ditin lehia
Eta ez gitian junta Kasta agotaekila.

— 5 —

Agotak badiadila badizut éntzutia
Zuk erran deitázut ni e banizála
Egundano ukhen banu demendren leinhuria
Enundúzun ausártuen begila so egitea.

— 6 —

Jentétan den ederrena umen da Agotá umen
Bilho hólli, lárru chóui eta begi gnabárra.
Nik ikhóusi artzágnetan, zu zia ederréna,
Eder izatéko aments agot izan behar da?

— 7 —

Sóizu nointik ezagutzen, zouin den Agotá;
Lehen soa egiten záio hái behárriala;
Batá handiágo duzu, eta aldiz, bestéa,
Biibil eta órótaik bilhoz unguatía.

— 8 —

Hoi hala balinbáda, haiétaik etzía,
Ezi zoue behárriak alkhar udúi día.
Agót dénak tchipiago badu beharri batá
Aitái erranen diot biak bárdin tutzúla.

———

Kabaliak goue zerbutchái

Batugu hánitch goue zerbutchuko: arrés, béhi, zamái, bóhor, ásto, áhuntz, oúrde, zákhur, gáthu, oillo eta habó;.... basak, beén aztuala bizi dienak Kanpo.

Adamek oro ezagutu zutín, Jinkouak herrokan aitzinin igadneazi zeitzolákoz, béak bakhótchai izena eman lezan, eta hala egin zin, oano e ber izénak beitutie: hi behía deithuik izanen hiz, hi astóua, hi tehóua, eta oro gisa hortan. Eztutugu oro goue eskupeko bezala eabilten ahal; hánitch aiker eta ezkapá hurruntzen záizku, bena óroek senditzen eta ezagutzen, houak beno zerbait habó giela; badakigula egiten, hek egiten ahal eztiena, badugula gogóua buián eta beso eta eskiak goue defendatzeko eta zer náhien egitéko hen Kountra. Noula nahi e, hek senditzen goue náousitarzuna eta errespetatzen. Goue zerbutchukóuak beak noula eztutugu eabilten!

Ezakúrrai erraiten deógu: tóou, téa, bichbichbich, tous, tous, eta tchakurra jiten buztana tchut eta Kountent; ichileázteko eta baztertzeko: téchi té, Kóutcha, Kanpo, chóucha hórtik, allez coucher, eta meztúa achal bateki Kanpo jouáiten, igaáiler tchanpa egitéa. Aldiz, artzan hóa bada; ardikito eta houa ardien ganat jouáiten. – Gathiaentako: migní, migní, mignigna, minicha, tchitchi tchitchi, eta gathia jiten, Kaesi galthoz eta bizkarra Konkortúik eta tzuntzurrían vrrr gochó bat entzuneazten. Geo, prountzen bada eta behar eztén gaizalát huillántzen: gátchit, gaátchit erran eta zahaóuaz lurra joiten bada, gathiak bertan hatía hountuko du. — Behíai erraiten zaio: tchítchou, tchítchou! eta eabileázteko edo hurrunteázteko: bé, aoubé; geo, bárdin: chuá, árre, áchti, álza eta haek oro egiten. — Astóuai; deitzeko: to póillo to! tchitchou, tchitchou! eta astoua jiten, bastatzeko han ekhúi egóiten, arri erránez, íi, io, u, astoua aitzina jouáiten; árre eta ekhuátzen. Bardin hola hola eabilten tugu bóhor eta mandóuak. Arréser, huchtu bat egin, érran áigaái! arresak jiten. Ahúntzai: gnigní, aigu no, ai! eta ahúntza huillántzen, gatz amigni baten ukheiteko amodiaiaéki. Geo, zalhe beita eta javuzkái houn, eta ~~soho~~ eta alhorretáat sártzen, ahur húchtu bateki aía, te, té, oihegiten, eta beharriak tchútitsik, hóaen lotsaz, hurruntzen. — Oillóuak déitzen tugu erranez: ttitta, ttitta, prrrura, tti, tti, tti; hurrunteázteko áldiz: ouch! ouchóu. — Pijóuer eta tchitchér: pi, pi, pi!

Ourder, déitzeko: trou, trouou, trou, trou! eta hurrunteázteko: phrrou, phrrouté. Egiazko ourdiak! oro lohiz eta zikhinkeiaz bethéik, gocho betzáio ichtilétan, eta lohian, edo noun nahi, utzulárrikatzen, eta etzánik egóiten. Bai, bai, bena gaiza houna ourdakía ouinétan, eta tchinkhorra mahágnian.

Hoik oro, eta bestéik, goue lagunak edo biziázliak, zen eta gouetáko eginik izan día, goue unquían bizi, guk e bizitzen lagúntzen,

eta azkenian proféitiak gouetako. Hanitch aldiz basa Kabalétaik e abantáilla elkhiten dugu.

Adámek, zakitzanak oro izkiübuz utzi baléizkigu, zer ~~eztzéikun~~ etzéikun erranen Kabalétaz eta lurreko phaadüsiaen edertarzunaz! ~~Ametsetan~~ Ametsetáik bezala egónen ginén her phentsátuz.

Eta Kabalek, zer hóunkiak eztéizkuie emaiten, láneko laguntzátik Kanpo! Oillo, ahate, antzáa, poulóiek, arraoutziak, eta beak e thipignétan eta ouinétan, houn, houn. Hen luma eztieki egiten ~~egiten~~ tiogu, khotchí, buunegi eta ohe estalgi beoüak. Ardíek emaiten déikuie, ezné lódi bat, gazná egiteko, ilhe, achóui, lárru eta aági gizenik, ihaóuteko, eliza bestako, eztéietako; behíak e, ezné, aági, lárru, ádar; guti galtzen. Astoüa eta mandoüa laneko eabillen dutugu; bohórra eta zamaiak, zelako eta Karróucha thiatzéko. Phuntzak emáiten déiku ezné houn bat, zounbáiten erranétik, gouetako hobena, aági hóunik e bai, bena ilhéik ez. Oroek hátik, góotz houngarri hounik, lúrraen gizentzéko. Ourdia, zounbát nahi ourde izánik e, gouetako oro houn, bai eta ezurrak e, saldái gozo emáiteko. Gathiak sagíetaik librátzen gutu, deus habó. Llapí, érbe eta urchántchek, aági hóunik emáiten déikuie; eta hek, achei suberte zounbáitek eta beste animale básaek, lárru balióusak eta beoüak, segúr arraKasta handiko gaizák andeén Koletétako.

Uilliek hánitch aldiz ehelegeázten gutie eta tchistaKátuz gutie e bai; eta hátik erlíak badia, noula ~~ez~~ eztugu maite hek egiten dien eztia. Badouátza bazter órotaik biltzea lilietako erháouts hoillía, sukre, hour e balinbada, eta geo mastikátuz egiten ezkoua eta houn záikun eztía.

Sógin, sógin Khobáin bati, hoitahamar edo berrogei mila erle ai diénian lánian. Ze herria! — Erran nahi beita Kabalétan lagúntza eta bizigáillu edieiten dugula. Egiázki Jinkouak eman déizku, nasáiki behar eta nahi dutugunak oro eta habó e. — Bestalde, Kabalék badakie nourk beák zer arma din, bee buiaen defendatzeko eta begiatzeko: tzakúrrak bee hortzak, gathiak aztapárra, ourdiak eta basoúrdiak lethaginak, asto, mando, zamaiek gibeleko zankhoüak, zálhe eta goa eaikiten beitutie; behi, idi, zezenék, oustiKáta emáiten jakinik e, badakie indárra adar phuntétan diela; ahúntzak adarrak; arrano, boúiltra, ilháintsa, esparbea, halKóuek, mosko gáitza eta aztápar izigarriak; ahaíak burháta gogorra; óillo, ahále, poulóiek deuse handiik, ezpada mosko Khá]ldu zounbait; tchoíek áldiz, hegal hounak, haát hounát ezkapatzéko.

Oro bizi nahi; oroek bizi behar eta bizitzekoüa atzamáiten.

Ourthátse áltian

Equberri! Nour ezta bòzten besta hortan phentsatuz? Gaihérdiko mezá. Elektrizitatéik ezten lekhietan, batek eta bestek argiak eamánik, geo hala hala etcheát utzultzeko lanterna bateki, eta apáiduchkót bat hóunik hártuik ohllat jouaitéko, argi zabála jin ártino edo behitegitik behiak óihuz has artino. Baiá! Eguna dugia? Elhurra balinbada udiii du oáno Equberri ederrago dela. — Zounbáit lekhhietan, mezpeán, háourrak badouátza, Jésus háourraen estatúa tchipi bat Khuqná batétan ezaiik, borthaz bortha Khantatzea, etche aitzinétan, zerbáiten biltzeko. Ulhurian mouthiko gazte zounbáit badouátza hala hála, gai háinaen Khantatzea, houak etche aitzinétan, zerbáiten biltzeko eta bestaen hobéki igáiteko. Ourthátsez e bada holáko Kostúma zerbáit, eta hiietan, estrena zounbáiten igortia usátzen da. Ourthátse áltian ourdiak ehálten día, eta, léhen ja, amouinéouak eta bouhámiak ebilten zien, etchez étche, ourdáki zerbáiten gálthoz, eta, ukhena, izan zédin tripót, lukhháinka ala bestéik, ezárten zutien makhila batétan, eta sobéa zénian, esku zae batétan sártzen. Bachenabarren, borthála héltzian, erráiten zien:

Santi bateko andere
Orai bezala gero ere
Santi batek igortzen gáitu

Chinqarkéta gu ere.
Ez dugu nahi ourdia
Ez eta ere erdia
Bainan zathi baten phartia

Eta kasu geo, zerbáit hóunik ezpazén emáiten, bouhamiek bazakien erráiten, etchekandeiak éntzuteko gisán:

Hemenko gazitegian
Sagiek humiak egiten dituzté.

Aphaizioz e bada, edo, hobéki erráiteko, bazien Kostuma hoiétaik. Oai, óro khanbio dia; ezta habóamouinéoik ilkhousten. — Háourrian, eskolán ebilten wintzálaik, herriko haourrak, bilduik, bazouatzan etchez étche, óihu eginez:

phika háou, háou, háou; sagar eta intzáour;
phika héa, héa, héa, sagar eta péa.

Eta biltzen zien, biltzen, arrasti askái houn baten egitekóua. Bachenabarran e bazouántzan gisala óihuz:

Hela! Chiula, lago, lago,
Háourra borthán dago
Intzáour eta gaztágna behá dágo.

Eta hek e, foutcho!, biltzen, biltzen eta besta egiten.

Bena, aphaizioz, ikhóusi nahi badúzu besta eder bat, zouáza Dona Joane Zubiat (St Jean de Luz). Han egun hártan egiten da Errége Mágouen bestá. Eta zer bestá!

Hiru mouthiko, hamaláou hamabóst óurthe áltekouak, errége mágouak zien bezála beztituik, zerbutcháiz eta háour hanitchez laguntuik, eta aitzinin dohan batek gida-tuik, horra dia herriai gáinti elizála, han sártzen, haát hounat sóoz, zerbáit tcherkátzen balie bezala, eta hola jouáiten Jesúsen etcholála (crèche); háourraen khugna aitzi-nin ahúspez járten, adoazióniak egiten eta dohagnak es-kéntzen. Luzachko han egon ondoúan, jéikitzen día, althae aitzinila jouáiten, préstatuik dien lekhíalat, gáiza bada mezá éntzuten eta arrastia bada mezpeak, errespetu eta ouhoue edérraeki, elizá jéntez betheik délaik, óroer eder betzaie zeremonia hoién ikhoustía. Meza ondouan berriz Jesúsi emanik been omáiak, etcheat badouátza prosesiónian, jin zien bezala.

Bésta eta prosesióne

Edérrik egiten da bazter órotan, Salbatóe aitzinéko egunétan, herri órotan, Kartiéleko Khurutchiélat egiten diénez Kanpo. Lóurdan béthi badía bésta eta prosesióne izigárri edérrak, eta han, bai, fede azkár batéki, ikhouen, ez déusen ahalkéik gabe; arrastitan, eliza aitzinéko plazán, unguian, Karroucha ohetan járriik dien éien aitzinin, egiten da Sakraméntu Sáintiaéki, baachgoí, baachgoí, prosesiónia, haéki éien benedikatzéko, eta, ártetaik, bat edo beste sendotuik jéikiten eta. Ulhunaeki, bérriz, argizko prosesiónia, plazáen pharte luzeénai unguru, bakhótchak eskíetan etchékiz ~~tórtcha~~ tórtcha bat, phíztuik, eta papéez unguatuik, eta gisa hórtan jentía órdrian ebíliz, emeki emeki, udiú du suzko uhaitz bat badouéla. Zounbáit áldiz, haen ondótik, gáiaz, beánt ártino egineáztendie pholbóa zapárta hánitch (feux d'ar-tifice), Kolóe órotako, udiú belúke izar górri edo berde zounbait lekhértzen diela, bazter órotat tchinkha igorten beitie, eta suzko ebi elibat bezála behéa jiten.

Gáiza ederrak sequr hoik óro.

Laou óurthetaik laou óurthetá, erresourma batetan edo beste batetan, egiten día, Sakramentu Saintiáen ouhouétan, zounbait egúnez, besta ezinago ederrak. Bazter órotaik haát biltzen da jentía, apheez hánitch, aphuzkupu eta

eta Kardinál e bai, eta Aita Sáintiak nourbáit igorten bee ordai. Aita Saintu, Pie XII, lehen, Kardinal Pacelli, aitzinéko aita Sáintiaen lagun edo minichtro zélaik, izan zen hortako hanitch lekhútan. Eta hainbeste jente ezpéita elizán edeiten ahal, Kanpóuan, plaza edo paseagia zounbáitetan ezarten die Khuutche handi bat, hai unguiu taouladúa goá bat, hartan althaia eta zeremoniétako behar dena óro, óroek ikhoustéko eta jarráikiteko gisán. Jentia herrokátzen da, eta, Komuniatzeko, han béian egóiten, igitu gabe, eta aphezak badouátza herrokén ártian, ountzi handi bat eskietan, Komuniatzea emaiteko. Zounbat aphez ezta behar hortako! Phéntsa! —— Buenos Airesen, 1934 ourthían, préstatu zutien oro hii bazterreko paséagiáen erdian: Khuutchúa hoitahamabóst métra goa, barnen utziik han zen estatua animal bat, taouladuá óro hai Kouintre eta jentez irigarría. Egun batez óroentako; gai bátez gizonéntako eta bazien beréhun mila (200.000) edo habó, herriko plaza batetan. Beste egún batez hamar mila soldado (10.000) been gehiéneki, eta, aitzinin Presidenta bee emaztiaeki, eta ikhousten ahal zien, erdian, aphezak Kobesio éntzuten nounnáhi, elizán ala Kanpóuan, harri batetan járriik, edo sala zounbáitetan, bortha alharzetan, bidiaren erdian tchútik, noula nahi, hainbeste jénteentako. — Beste egún batez, haourren aldia, ehuneta zazpi

mila (107.000), oro choúiz bezti, zen eta, eskoletako, eabilten dutie tablier chamar chouiak. Háourrak, óro bee lekhietan othóitzian, Kantátzen, Komuniátzen, eta meza oundóuan, Kardinal Pacelli, otó batétan, tchútik, háourren aitzinin igaán zen, benedikátuz. Ze bichta! —

Igantian, azken egúnaeki, arrastitan, Sakramentu sáintiaen prosesiónia, paseagia luze bati gáinti, ekhi sáintia espré-seko otó zabál batetan ezaiik, zougnen edérki; haen aitzinin, belháiko, Aita Sáintiaen ordáia, geo beste Kardinalak, aphuzkupiak eta aphezak, hóugnez, Karrouchaen aitzinin, saihetsian eta gibelian, jentia nourtaki nóua hurrun, órotan bi milioukо pillika bat igaánik. Zerbáit zen bai, hoi e.

Azken gerlak, ekhuazi zutin hoik oro; bena, geo, gaizák bee lekhietat jin beitia aski eijérki, besta hóik arra hási dia.

Besta eta prosesione (bérriz)

Hebegáinti egiten bada besta eta prosesione edérrik, seguir, espagnako gáintian e egiten da edérrik, Besta Berriz, aste sáintian, eta beste okasiónetan; lehenik, Elizán pheedikú eder bat entzúnik. Ikhousi behar da noula zounbat gizonek laguntzen dien Sakraméntu Sáintia, ukhaia bezain lodiko, bi metra ~~luze~~, edo hüillan já, luzeko

tórtcha bat eskietan, eta bethi phiztuik elchekitzen.
Ostiále Sáintian, Karrikái gáinti eamáiten dutié,
prosesióne edér batetan, eztatua zounbáit: Jesus olibétako
baatzian, Santa Madalena, Ama Birjiná, Jesukristo
Khuutchiaeki, habouenetan, laou gizonek hagétan, bizkarrian,
gizonak aztalila heltzen den kapelotch gorháil batez bez-
tituik, eta beste eskietan sardekiil bedea, ekhuatzen dien
lekhietan, hagén pháousatzeko. Gáinti batétik eta bestétik,
bi soldado, leheneko Erroumakóuak bezala beztituik,
ezpatá eskian, tchut, etsái baten begiazale balía bezála.
Gisa hórtan badouátza Kharrikái gáinti eta berriz elizalát
biltzen.

<u>Sevillan</u>, Espagna zolako herri handian, egiten da
Ostiále sáintuz, holako prosesione izigárri famatía. Eztitake
erran han ikhóusten eta éntzuten dena; háa joun behar da
eta saihetsétik sooz egon, oro igaán ártio, zen eta jentía
badóua izigarri odre ederrian, phartalíéak oro bakhótcha bee
lagúnaeki (confréries), been bandéa, arrópa eta marka be-
heziaeki: Kofradia hek dutie eztatuák eamáiten.
Arren, Kharrikér gáinti jouáitian eta santa Madalena, edo
Ama Birjiná, edo Jesukristo igáitian, tánpez, leihó batetáik,
edo galéia batetáik, nourbáit Khantátzen hásten da, hortáko
egin dutin Koblak; hurruntcheágo, beste batek, beiak, eta

hola aitzina lízaz, jentia behá baitágo, ziá zé erranen
din edo noula laidatúko din sáintia. Ze Khantóiak
eztia han éntzúten! Besta horren ikhoustea horra día
bazter órotaik, erresouma órotaik, eta behin izan dénak
ohitzapen gozo bat begiátzen du.

<u>Ondarrabian</u> (Fontarabie) egiten da holako prosesióne
bat, bena ezta Kobláik Khantátzen.
Neskenégun sáintuz, Ofizioúen ondótik, mezá hástéko phun-
tian, aste denboán lana egin dien soldádouak, hamar bat
edo dozená bat, aintzindaieki, elizán sartzen día, eta
erdiko bidétik aitzína jouáiten, bethi bezala urhátsak
Khountátuz. Badié echkerreko besoúan jáountsiík, Errou-
manouek bezala, zoúez edo burdúgna ahinez egínik den
phaleta chabal biibil bat, berrogei bat zentimetra zabal
(bouclier), etsáien Kolpen phaatzeko, edo buiaen thapatzeko.
Elizán sártzen día herrokán, gehiénaeki, soldado batek
urhatsak Khountatzen dutiálik, ezpataeki, phaletá jóez:
bat, biga, hiou, <u>Kaska</u>; bat, biga, hiou, <u>Kaska</u>; eta hóla
badouátza aitzina, mahain sáintu Khantila eta han
ekhuatzen, hedatúik den óihal tapiz baten gagnen; behar
dien ártiak hartzen, eta tchúitik haidú egóiten.
Aphézak Gloria in excelsis † erran diénian, gibélez
gáinti eórten día, bestórduz Kalbaiokóuak bezala, eta

lúzaz hán egóiten hilik bezala. Geo, gehiena jéikiten da, bee ezpatá bil, eta haeki soldádouak hóunkitzen tu bedea bedea; soldádouak jéikitzen día, eoi zaítzen gaizák biltzen ezarten noula náhi, Kasketá trebés, edo gibel biuz, ezpatá e noulepáit, eta hala hála phaletá tchilintcháou, badakita noula, eta harrituik, ahalketuik bezala, badouátza Kanpo tropa nahasian, Eta herriko haour habocchiák han beitía, begiak zábal, eiá eztiénez alagéa hoien óroen ikhoustian.

Igantian e ~~bada~~, argi urratzian prosesione bat egiten da, bi phartétan bekeziik, eta bi Kharríkaí gáinti ebilten, gune houn batetan algarganát biltzeko, erraiteko memento hártan Jésus, arraphiztuik amaen ikhoustea jin zela.

Irougnen (Irun). Ostégun sáintuz, Sakraméntu sáintia ezai dien althaiaen aitzinin, badía egun órotan bospasei soldado, bi herrókatan, saihetsétan, erdia libre ützi. Ountsa beztituik día; eztíe phaletáik ez ezpatáik, bena halebárda lántza handi bat. Noúiztaik nouiztá, soldado batek, bee lantzáeki lurra jóiten du: phanpa; aphur baten buian, besté batek, eta geo besté batek eta hóla aitzina.

Aldizkatzéko thenóra heltu dénian, aldikaiak hullántzen día, Ordían bi gehienak, jilia eta jouáilia, badouátza erdila, eta althae aitzinin belhaikatzear; geo, tchütituik, zeremonia eijér batétan, bata bestia salutatzen díe eta Sakramentu Sáintia.

Behála, aldikaiak bee lekhietan jarten día, eta bestiak, badouátza hurruncheágo, emekigni emekigni, ~~gibel ebiliz~~, gibélka ebíliz, han unguátzen eta elizátik élkhiten.

Han ikhousíko duzu oano, jaoun erretóak eamáiten díla zinta choüi eijér batétan ezaiik, lephotik tchilintcháou, Sakramentu sáintia ezái dien Kaminéteko giltza, bihámen ártino, elizán, étchen eta Kanpoian.

Kostuma ederrak hoik oro! Bestétan e egiten díenak ikhous bagíntza, bihótza oüntsa góitituik egon gintáke, segur. —— Irougnen oano, fédiaen hedatzeko bestá bat egiten da, Joundáne Jouháne egúnbátez. Elizá háourrez bethétzen da, tinkoun tink. Oro prest diénian, prosesiónia hásten da, elizátik plaza handila, bostéhun métra húrrun, góa behéa. Háourrak badouátza bi herróka izigárri luzetan, bide bazterrétaik; erdian, ártez árte, háour parrastá bat, beztituik misioniste, fráide, seóa, aphuzkúpu, Kardinále bezála; geo, bat, Aita sáintu bezala, chóuiz beztituik, eta, ouhóuetako, saihetsétan bi aphuzkúpu edo aphez. Hen ártian, badouátza hánitch, baták indiánouak bezála, Kolóe górri, luma handízko koháak buian; beste zounbait tchinákouak bezala, hóilli díde, begiak hein bat góiti other, buütik gibel, bilho trena luze batéki; beste zounbáit áldiz, oro beltz,

begithártia, besóuak, eskíak, zankkóuak, agëi dena óro, deuse chóui, begiak eta hortzak báizik, burhás, afrikánouak bezála bezála. Eta jente hánitch her sóoz. Plazán, orobildu diénian, pheédiku zerbáit éntzuten die, Khantátzen, othóitze egiten misiónentako, eta, bérriz elizalát utzúltzen, geo, hántik barreatzéko.

Nork zion bada, lurrak eta liburuak elgarren eite baQutela?

Alaina, nola liburuak bere solasa, hala lurrak bere goiti-behetia, zabaltzen ohi derauzkute. Eta ahal duenak ahal duena irakur dezake haren lerroetan eta ikhas hunen erzaietan.

Erdiengiá

Elizáko zerbutchái handiak p. 1.
Lúrraen eta lurrekouén haslapéna 5
Notes 11
Tchostakák uchkal herrian 15
Agoták 20
Kabaliák goue zerbutchái 24
Ourthátse áltian 28
Bésta eta prosesióne 31
Béretik bérriz 33

Eskualzaleen-Biltz

Zerbitzari -
Eskualzaleen Biltzarra
1956

UNIVERSEL

Eskualzaleen Biltzarra
1956

1 LAPHURDI

Hazparne

Philippe Veyrin batek nihork baino hobeki ezagutzen du Eskual-Herria! "Les Basques" delako liburu eder bat bazuen egina: etzen hau nihun gehiago kausitzen ahal. Berritz argitaratu du egileak, osaturik eta edertürik. Liburu horrek huts bat badu: ez du Hazparne aiphatzen ez balitz baino gehiago! Hazparnerik ez, bere Kaskoina, Jatsa, Behachka, Echperantcha, Damestoy, J'Itzia, Darruty, Behengaray, Laco eta bertze ehun pilotari ederrekin? Hazparnerik ez, bere Iharce de Bidassouet, Broussain, Hiriart-Urruty, Léon, Charitton, Duhour eta hainbertze eskualzale fama handikoekin? Hazparnerik ez, Clement Mathieu bere jaun aphezpiku jakintsun eta ezagutuarekin? Hazparnerik ez, bere Bordarrampe, Verges, Hiriart, Soubelet, Charitton, Amespil eta Luro jaun kalonje hedatuekin? Hazparnerik ez, Andre Madre bere jeneral gaztearekin? Hazparnerik ez eskuara hain ongi dakiten eta hain gogotik mintzatzen duten ehunka eta ehunka haurrekin? Ederra dugu hori! Beharrik, Andre Madre jeneralak berri-berritan argitaratu duen ikusgarri chozagarriak delako liburuak baino gehiago aiphatzen ditu Hazparneko chokhoak eta Hazparneko ohidura ederrak! Beharrik, orobat, urthetik urtherat Laurent Ayherza jaun errient eskualzaleak igortzen dauzkun eskual lanek bortchatzen gaituzte Hazparnez berritz mintzatzerat! Aurthen badakizue zenbat haur lothu diren oraino Eskualzaleen-Biltzarrak galdetu lanttoeri? Lazetan hogoita hamazazpi! Berrogoita bederatzi nechka, berrogoita zortzi muthiko. Beha ongi nork zer irabazi duen, lerro-lerro: Marie-Thérèse Berhouague, berrehun libera; Marie-Jeanne Camou, Pierrette Artayet, Joseph Bidegain, ehun eta berrogoita hamarna libera; Berdanette Petrissans, Jean-Louis Lecumberry, Adeline Maillouquet, ehun eta hogoita bortzna libera. Larretik oraino ez ageri eta ikusten duzue jada Adeline bere motsa, betkea! Otto Leoni zigarro baten pagatzekoa badu orai... gogoratzen bazaio! Ehuna libera Bernard Berroueti, Bernadette Hiltari, Dominique Soubeleti, Pierre Artayeti eta Marie Inçabiri. Bakotchak lauetan hogoi libera ukhanen dituzte Robert Lahirigoyen, Marthe Aguyet, Jeanine Othorotz, Gabrielle Labar, Madeleine Bidart, Joseph-Mari Larre, Bernard Arotsecha, Madeleine Laborde, Danielle Etchevers, Thérèse Haristoy eta Paulette Fourcadek. Huna berrogoita hamarna libera irabazi dutenen sail luzea: André [illegible], Henri Ospital, Andre Laborde, Pierre Etcheberry, Joseph

Junca, Dominique Cornu, Michel Ospital, Jean Paguequy, Jean-Louis Sabalçagaray, Ida Lacroix, Manolita Iriztia, Denise Iriart. Ohorezko aiphamenak Madeleine Curutchet, Suzanne Dumont, Henriette Labat, Danielle Agorreca, Yvonne Arotsecke, Alice Etchemendy, Danielle Sallaberry, Lucie Larre, Michelle Blezio, Marie-Claire Bidonde, Jean Zubialde, Martin Larre, Pierre Hourcade, Hubert Fabas, Pierre Etchevers, Sauveur Haristoy, Jean-Baptiste Zipy, François Larre, Claude Maillonguet, Henri Escutary, Dominique Artayet ... eta bertze guzieri ..... Baratze handian lore hainitz! Halako baratzezainak direlarik haatik!!

Donibane-Lohitzun

Huna bertze baratze eder bat. Hazparnek baino lore gutichago ekartzen du haatik. Guziz aurthen. Zertako? Mentura atzea Donibanen emendatzen ari delakotz eta harekin erdaraz mintzatu behar bakharrik! Joanes de Haranederren Philotean irakurturik badakigu ulhiek ez dutela penatzen bakharka, bainan bai bere osteaz eta hainitz izanaz. "Donibandarrak" atze hainitz izanak, ez ditu batere kechatzen. Hanbat gaichto: beren eskuara polita ebatsiko diote! Ohore, horren beldurrez lanean ari direneri, aphez, erretora eta bertzeri! Ohore bereziki gure lanttoak amodio handienarekin egin dituzten hiruetan hogoi neckha eta muthikoeri, nahiz ez diren oraino Joanes de Haraneder gorachago aiphatu diotegun Eskual idazlearen heinean! Sos frango irabazi dute, Azkaineko haurrek karrik egin dutelarik. Beha lerro eder huni: Martin Lafitte, Jean-Baptiste Arrieta, Renée Berasteguy, ehuneta berrogoita hamarna libera; François Erdocio, Bernard Aguerre, Arantcha Gomez eta Marie Claude, ehuna libera; Jean-Michel Ibarboure, Geneviève Ospital, Louisette Arrieta eta Marie-Pierre Etchenic, laurtan hogoina libera; Paul Mouhica, Jean-Louis Yriarte, Michel Aramendy, Agnès Berasteguy, Hélène Elhuyar, Madeleine Luberriaga eta Vincente Arrieta, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Marie-Claude Berho, Marguerite Etcheverry, Marie-Jo Berrouet, Mayie Elduayen, Jean-Pierre Cebedio, Michel Mouhica, Michel Bidéondo, Raphael Inda, Jean-Pierre Hirigoyen eta Xavier Irolari ....

3/

Ziburu

Eskual-Herriko herri zaharrenetarik bat ditake karrikako etche batzueri eta elizari behatuz Ziburu. Etche bat hamabigarren mendekoa ez othe da Pekaletako chokho pollitean? Angelica Cirem andere idazlea choratzen dute: horra zertako tinta ederrenaz erraiten daukun doldoria argitaldua duen liburu eder batean: „Ce serait bien dommage que les générations à venir ne les respectent pas: lastima litakela holako etcheak ez begiratzea!».

Bada, Eskuara oraino zaharrago da. Joanes Etcheberrik erraiten baitzuen „Eskualdunen bihotzetan ez lukela hil behar», ochala oraiko Ziburutar guziak gogo bereko balire, auzaphezetik hasirik? Bainan ...!
Egia hau da halere: hainitz eta hainitz urthez Ziburutik nihork ez badio Eskualzaleen-Biltzarrari ihardetsi; bizpalau azken urthe hautan herriko buruzagiak iratzarri dire. berezki aurthen hamasei haurren lanttoak igorri dauzkute chuchen tenoreko. Huna beraz sariak irabazdunen izenek:
Jean-Michel Daguerre, ehun eta berrogoita hamar libera; Jean Lecuona, ehun libera; Seben Altuna, ehun libera; Gerard Aizpurua, Jean-Pierre Toyos, Martin Gurutchaga eta Joseph Uritzberea, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena François Lissardy, Bernard Aizpurua, Paul Harambillet, Marcel Martinez eta Michel Murari.
Errazue haatik! Ziburuko nechkek Eskuara arras bazterrerat utzi othe dute? Amignak zer erranen du, cherri gorria?

Gerezieta

Gerezi frango bada Gerezietan: ez aski, omen, herriari bere izenaren emaiteko. Garaizieta erran behar litakela dio paper zaharretan hain trebe den Villalonga jaunak: ez diogu ezetz erranen! Anne-Marie Begorrek arras liburu eta paper zaharretakoa heldu baita, ihardets dezola ondoko egunetan. Ankartean, Anne-Marie, ehun eta berrogoita hamar libera ukhanen ditutzu, aurthen igorri daukuzu lan pollitarentzat ... Gutiz ez utz!

4/

Uztaritze

Hiri handisko gehienek badute beren seinalea, erdaraz « blason » erraiten diotena. Erran gabe doa Lapurdiko herri-nausiak baduela borea, liliaren aldean lekoina. Horra nola egun goizean gure aphez-othoitzak erran dituganeko tiroa bezala gogorat ethorri zaukun Uztariztarrak hemen aiphatzea ez genezakela luza, lili gose direla : catuli leonum rugiunt ad prædam. Hiruetan hogoi urthez goiti baitu Uztaritze ezagutzen dugula, hartaz egin dezakegun laudoriorik handiena hau da, deusetan ez dela berritu, lehengoa dela bethi Ferrondoko karrikako etche zahar ederrekin, bere komentu handiarekin, bere Errobiko ur garbiekin, oihan zabalekin, gazteria prestuarekin, eta eskuazale paregabekin ! Hauk dire lekoinak : ez litake on hauen aztaparretarat erortzea ! Are gutiago « catuli » direlakoen aztaparr jada chorrotchetarat erortzea : lili batzu aldean emanez ichilduko dire segur. Liliak ? Sosa nahiago dute. « Catuli » maiteak, huna beraz nork zer ukhanen duzuen igorri dauzkutzuen hogoita lau zuhaitz eta hogoita bat chori eta hegaztin izenentzat : Jean Dominique Maisterrena, berrehun libera : Maite Oteiza, berrehun libera : François Elissalde, Eliane Zubiarrain, Marie-Helene Darlas, Paul Sistiague, ehun eta berrogoita hamarna libera : Jean Sarratea, Jeanine Pelletriat, Lucien Sistiague, Annie Etcheverry, Edouard Arambel, Madeleine Sistiague, ehun libera bakhotchak ; Jesus Jubera, Marie Duhalde, Pierre Hiriart, Marie-Odile Etcheverry, Jean-Baptiste Sarratia, Cecile Goñi, Albert Oxarango, Annie Duhalde, Michel Lordon eta Antoinette Guilsou, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamenak Jany Irazgucki, Jeanine Lafitte, Jean-Baptiste Zubiarrain, Jean-Pierre Hiriart, Rene Marquine, Jacques Elissalde, Monique Fagalde eta Martine Darlas. Bururatzeko, hauche erran dezogun bakarrik nechka begi urdin pollit bati : nahiz ardura oihaneko zuhaitzetan ikusten duen jauzika « urtchintcha », urtchintcha ez da chori bat .....

5/

Milafranga.

Milafrangatik aurthen eskuratu ditugun „pomiera, pommier — chaina, chêne — après bihar, après demain — grelotatzen, grelotter — fougerak, fougères„ — eta gainerateko „effrayanta„ batzuekin segur baginuke "Herrian" hamar lerroren bethetzekoa eta nun-nahi irri eginaraztekoa. Bazterrerat utziko ditugu „ baitakigu Milafrangarrekin ez dela trufarik : odolak jauzi egiten diote laster sudur puntaraino. Mila hirur ehun eta berrogoita laueian ez othe zuen norbeitek nunbeit hauche erran : „ Les Basques poursuivent à outrance les gens de Bayonne, les dépouillent de leurs biens, les rançonnent et les massacrent „. Biphiltzen eta larrutzen beraz chori batzu bezala ! Bada, badakizue nor ziren Eskualdun horiek ? Milafrangarrak. Aski eder baitzitzaion segurki hori Jean St Pierre gure adichkide zenari ! Dena dela, ez dugu beraz Milafrangarrik hemen kilikatu behar ! Eta gero lauzpabortzek makhursko itzuli dutelakotz eskuararat gure erdara, ahantz othe dezakegu gutiz gehienak arras plantan arizan zauzkula ? Hauk, bertze edozoin bezen trebe dire, oro har, eskuaraz : horra zertako, orotan bezala, hiruretarik batek sariak irabazi dituzten. Beha sail eder huni : Amelie Ertoran eta Joseph St Pierre, ehun eta berrogoita hamarna libera : Alice Toucoullet, ehun eta hogoita bortz libera ; Monique Labat, Elise Casamajor, Annie Barleduc, Bernadette Saharrart, ehun libera bakhotchak ; Jacques Labandibar, Josette Saussie, Anita Irigoyen, Michel Bessonart eta Michel Darmendrail, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Joseph Daguerre, Marcelle Maître, Françoise Larrenduche, Monique Toucoullet, Frédéric Doussin .. eta Anitari. Zoin Anitari ? Anita Labandibar, allo ! Handia da ez badautzue nik erran gabe gogoratu !

6/

Sempere.

Italian, Firenzako itzulia egiteko atsegin handia izan dugu aurthen. Sempertar bat baginuen gurekin, Gracie Bonnet. Badakizue Firenzan norbeitek zer irakutsi daukun? Mila zortzi ehun eta berrogoita lauean Joseph, lehenik Napoliko, gero Espainiako errege izanaren hil-etchea. Sempertarrek ba othe dakite Joseph, Charles-Marie Bonaparte eta Marie-Letitia Ramolinoren semea — Adema jaun kalonjeak aspaldi Larresoroko ikastegian erraiten zaukun bezala — Semperen egona dela? Nun? Helbarronen, Suhastian. Mila zortzi ehun eta hamahiruan han ikasi zuen emperadoreak tropen aintzindarigoa khentzen ziola eta Soult marechalari emaiten. Uztailaren hameka zen. Semperen baltitake erraiteko orduko egunez. Guk ez dugu ez demborarik ez "Herrian" lekurik. Ochala bertze norbeit has baladi! Haur erneak badire Semperen. Ez othe da bat edo bertze paper chaharreri lothuko, orduko chehetasunen nunbeit agertzeko ... eskuara ederrez? Gei dire Sempereko haurretarik frango. Loria da irakurtzea. Eskuetan guk bezala ibili bazintuzte Sempereko hiruetan hogoita hamahiru haurren aurthengo lan pollitak! Ez detzazkegu haatik guziak sarizta: moltsa ez dugu aski handia ... eta herri batzuek guti lagundu nahi. Huna sariztatu ditugunen izenak: Marie Arizcorreta, berrehun libera; Jean-Pierre Guilsou, Rosalie Belaunzaran eta Maite Mendy, ehun eta berrogoita hamarna libera; Michel Aramendy, Maite Ithurria, Jeanne Bereau, Maite Harosteguy, Jeanine Zamora eta Harisgain, ehuna libera; Louisette Yanci, Françoise Yarçabal, Arnaud Dagerre, Henri Lamothe, Carmen Valencia, lauretan hogoina libera; Maritchu Etcheverry, Henriette Berrouet, Jean Mendiboure, Annie Balerdi, Germaine Ithurria, Maite Doyhenart, Etienne Olhatz, Michel Hirigoyen eta Anne-Marie Etchegaray, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Genevieve Mendiboure, Maite Rimbert, Marie-Jeanne Astigarraga, Maite Yarçabal, Gracy Darancette, Noël Michelena, Jean Etcheverria, Ignace Galardi, Marcel Noblia, Pierre Cuburu, Dominique Hirigoyen, Benita Zamora, Thérèse Etcheverry eta Joseph Endarari .... aurthen zendu Dominique Dufau eskualzale maitatuari gure orhoitzapen hoberenarekin .....

Eta huna ahoaren garbitzek gasna ona bezala ... bi ichtorio erraile pollit Semperen: Jean-Baptiste Josie eta Laurent Behasteguy. Ehun eta berrogoita hamarna libera askiko othe zaiote?

7/

Urrugna

Berak eskola handien-handienak eginik, bizpalau urthez lehenik ikastegi famatuenetan irakasle egona, gero hainbertze urthez herriz-herri misionest ibilia da Urrugnako erretora. Segur ez da nor-nahi. Bertzeak bertze, bururen-buru, eta patera bezala, ba omen dakizka Theophile Gautier famatuaren pertsuak, España:

„Urrugne
Nom dont le son rauque à la rime répugne".

Joanden neguko hotz handietan ere ez ditugu ikasten ahal izan, guk! Ez dezagun beraz nihoren harritzea bilha, eta laño-lañoa erran dezagun erraiteko duguna, Urrugnan iragaiten diren eta guziz han kokatuak diren frantchimant guzien gatik Urrugnako haurrek ez dutela eskuara ahantzia, ez doazila ere ahanzterat, hainitz beldur ginen bezala! Gora! Gora, Urrugnako haurrak! Guziz aurthen beren lan pollitak igorri dauzkutan berrogoita hamar edo hiruetan hogoiak! Ez dugu astirik orozen izenak berro-berro hemen agertzeko: izendatuko ditugu beraz lasterka jaunen jaunak ,,, eta anderen anderenak: Marie-Louise Usabiaga, berrehun libera; Joseph Irazabal, ehun eta berrogoita hamar libera; Jean Berachateguy eta Carmen Curutchaga, ehun eta hogoita bortzna libera; Antoinette Perugorria, Marten Belhart, Albert Halsouet eta Etienne Errandonea, ehuna libera; Madeleine Larzabal, François Urcelayeta, Antoine Olaizola, Madeleine Garmendia, Helene Jaureguiberry eta Marie-Hélène Yriarte, lauetan hogoina libera; Marthe Perugorria, Gabriel Aramendy, Anne-Marie Larzabal eta Marie Urbistondo, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Maite Goya, Mirentchu Orgogozo, Joseph Alcorta, Jeanne Eizmendi, Paul Rivera, François Tellier, Leon Albizu, Josephine Biscay eta Michel Iraztorzari .....

8/

Arrangoitze

Irakurtzailea, nor-nahi izan zaiten eta nungo nahikoa, sekulan zure urhatsek Arrangoitzerat erematen bazaituzte, etzaitela handik joan eliza ondoko hil-herrietako itzulia egin gabe: ikustea balio dute. Eta guziz handik zure begiak ase behar dituzu alde guzietan hedatuak diren ikusgarriez! Mendiak, oihanak, gaztelu ederrak, etche churi pollitak, eta oro! Ez dautzagu aiphatzen baizik alde aldean gure adichkide, aspaldiko adichkidearen ohantze maite chaharra! Eta Arrangoitzeko epichtola zaharrak « Desa makhila Arrangoitzeko » erranik de, etzaitela lotsa, eta plazan trika zaite pitobari ttipi heien ikasteko eta hango eskuara maitagarriaren hurrupatzeko! Bai, Arrangoitzeko eskuararen ... hurrupatzeko! Bazinaki zolakoa den, guziz nechka pollit batzu mintzo direlarik: Cecile Erreiti, Yvonne Sabalçagaray, Marcelle Garsuan, Thérèse Arosteguy eta Paulette Goyenetche, bertzeak bertze. Aurthen berrogoita hamarna libera irabazi badute, ez da harritzeko. Ohorezko aiphamena Marie Daguerre eta Berthe Etcheverriari ....

Zuraide.

Urtheak badituzu — hogoita hamabortzbat naski — uda heldu delarik Eskualzaleen-Biltzarreko lanen berri cheheak hemen ezartzen ditugula? Nihor orhoit othe da Zuraideko haurrak aiphatzen ikusirik? Aspaldi zuen neguan Axulai eta Penadietako puntetan iragaiten diren ahate zaharrenak bezen mutu zaudela! Mutu, mutu, mutu! Aurthen Jainkoaren mirakuilu batek lau nechka igorri dauzku, Ezpeletako « cours ménager » eder hartan barna. Igorri eskuarazko lan pollit batzuekin! Gora, nechka maiteak! Bazinakite zer atsegina egin duzuen Biltzarreko buruzagi ile churituari! Bazinakite lumaren puntan ardura gaichtakeria zerbeit duen zerbitzari harek zoin gogotik agertzen dituen zuen izenak beren sari ttipiegiak aldean! Marie-Jeanne Hayet, ehun eta berrogoita hamar libera; Jeannine Mehaca, ehun libera: Jeanine Larreguy eta Marie-Claire Hayet, berrogoita hamarna libera.

9/

Arruntze

Nihungo liburuetan ez da hainitz aiphu ikusten Arruntzez eta Arrunztarrez: urtats alderat Baionan agertzen den egutegi batek jaz aiphatu zauzkun haatik: « Uztaritzeko lur zathi bat da Arruntza, bere herriarekin baino gehiago gurutzatzen dena Baionarekin. Demboraz ez omen zen haatik ez Uztaritze ez Baionarik. Aste guzia ederki lanean lehertu ondoan, igande arratsaldetan Sensangoitzerat joaiten ziren doidoia hango ermitan chaharrarekin bi elhe eta bi othoitz egiteko ». Bichtan da eskuaraz egiten zituztela beren elheak eta beren othoitzak, Orai baino atchikiago zen segur Arruntze arbasoen mintzairari. Beharrik chokho maite hortan jaun erretor bat badute molde berrieri athea hetsi nahi diotena, eta hola, urthetik urtherat, eskuarazko lantto batzu eskuratzen ditugu udako beroeri buruz. Milesker, jaun adichkidea. Guzien buruan deusek ez du Eskualduna bere Eskuarak baino hobeki zainduko! Eta gainerat, lastima litake Arruntzeko eskuara pollita galtzea bere « zui » eta « mui » maitagarriekin! Egia hau da halere: ez, ez da hortan. Frango haur bada oraino arras trebe. Huna zenbeit, beren aurthengo sariekin: Dominique Diez eta Dominique Sallaberry, ehun eta berrogoita hamarna libera; Ginette Babaguy, ehun libera; Monique Labat eta Andre Diharce, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena, Jacques Durquety, Julien Diharce, Christine Bagalçiague eta Françoise Doyhenarti.

Urkoi.

Hazparneko herri ederrak baditu mila chokho pollit; ez du Urkoi baino pollitagorik. Zer-nahi etche elhurra bezen churi bidearen bi aldetan eta han hasten Urtsuko malda choragarria, guziz alderat itzuliz! Hainitz ikuslear badabila han gaindi eta oro mintzo erdaraz. Ez dituzte halere kutsatu sobera Urkoiko haurrak; hauk urthe guziez egiten dituzte guk galdetu lanttoak. Huna aurthengo irabazdunak: Joseph Bessonart, ehun eta berrogoita hamar libera; Paul Ithurburu, Jeanine Etcheverry eta Michel St Martin, ehuna libera; Pierre Etcheverry, Lucien Etchezarreta, Louise Lassus, Michel Berrouet eta Marce Etcheverry, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena bertze guzieri ....

10/

Larresoro.

Behin ez othe dugu, gati gora behera, liburu batean hauche irakurtu? « Larresorok eman ditu mundurat eskualzale handienak, Daguerre, Dithurbide, Ithurry, Harriet. Noz-nahizen begitarat ager zitazken ». Hein berekoak dire egungo egunean Diesse, Michel Etcheverry eta Olhagaray jaun kalonjeak. Eta badakizue zer uste dugun aurthen Eskualzaleen-Biltzarrari beren lanttoak igorri dituzten hogoita hirur muthiko eta neskekin? Gero ere baditazkela eskualzaleak Larresoron! Hobe. Hobe segur. Hiribarren batek Etchegoyen batentzat erraiten zuena erran ginezake kasik guk ere Larresoroko ekhei pollit horientzat:

« Ez diteke goibela ethorki harena
Duelakotz burua guziz hoberena »...

Ez ditagu denak sariztatzen ahal: orgattotara bat sos behar ginake. Huna... buru... hoberenak, sariekin: Lucie Hastoy eta Louis Jaureguy, ehun eta berrogoita hamarna libera; Bernadette Celhan eta Dominique Betbeder, ehuna libera; Jean-Claude Lecuyer, Jean Ibarra, Nicole Burucoa, Angèle Barnetche, André Dolhagaray eta Victor Pocorena, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Michel Iraçabal, Marie-Hélène Iraçabal, François Bidart, Madeleine Dolhagaray, Marceline Pocorena, Marie Barnetche eta Jean-Baptiste Iraçabali.
Eta horietan pinta bat arno ontto joka ginezoke Larresoroko auzaphez jaunari... eta jaun erretor adichkideari bardin... heldu den urtheko Jeanine, Michelle, Etienne, Leonie eta Annie batzu aurthengo irabazdunen heinerat heltzen direla! Egina da? Zopa.....

11/

Lekhorne

Joanden urthean urtheko bilkura Lekhornen egin zuten Lapurdiko, Bachenabarreko eta Chiberoko Eskualek ez dute phesta hura ahanztekoa. Ez, egundaino ez dute ederragorik ikusi. Egia erran oro alde ukhan zituzten: Urtsu eta Baiguratik heldu zen aire gochoa, Darraidoy adichkideak eman zaukun bazkari hauta, eta ororen alegrantzia, bertzeak bertze! Eta zer begitartea etzaukuten orori egin Lekhondarrek, elizatik hasirik Eslanderenaino! Orok kain bat egin ginuen Jean Etchepare miriku zenaren orhoitzapenean! Ez dugu segurki egun hori ahantziko. Ez dezatela guk baino gehiago ahantz Lekhondarrek! Are gutiago haurrek! Eta nola frogatuko daukute ez dutela ahantzi? Urthetik urtherat gero eta gehiago lothuz gure lanttoeri! Aurthen ez bada hamahirur langile baizik, helduden urthean izan ditela hogoita bortz. Sariztatuko ditugu ... langile arau. Eta aurthengo saridunak, huna: Germaine Urrutz, ehun eta berrogoita hamar libera; Maite Jaureguiberry eta Elisabeth Goutenegre, ehun libera bakhotchak; Berthe Mendiburu eta Elisabeth Etchebarne, berrogoeta hamarna libera. Ohorezko aiphamena Marie-Claire Cazemajor, Suzanne Harribelçague, Anita Duhalde, Marie-Jeanne Jaureguiberry eta Marie-Therese Hirigoyeni.

Bururatzeko Lekhorneko haurreri erran nahi diotet... ez dutala chorririk ezagutzen « urtchintcha » izena duenik ~~[illegible]~~ ez Lekhornen, ez Gerezietan, ez nihun... Biphiltzeko zer lana luken helduden Chipirinetan!

12

Cambo.

Ez du halako demborarik André Madre Hazpandar jeneral gazteak ikusgarri ehoragarri bat moldatu eta hedatu duela. Ikusgarri horrek Cambo aiphatzen du bizpahiruetan, erran gabe doa. Bertzeak bertze aiphu da Chiquito famatu batez. Badakizue haatik zerk harritu gaituen ikusgarri hortan? Nola ez duen hitz bat, hitz bat bakharra, egundaino hemen gaindi ikusi den emazte pilotari batez: Cambokoa zen: Azantza handiaren arreba, Itribarren pertsulariak erraiten daukunaz:

«Azantza izatu da pilota botatzen
Parerik etzuena Frantzian aurkitzen.
Bazuen arreba bat gizon iduriko,
Jakak khenduz geroztik, ona pilotako».

Oraiko Camboko neskak plazan baino arduragoa ditazke eskolan: horra zertako diren pilotan baino trebeago eskuaran. Ez da gaizkiago. Oi, bazinakite — muthiko guziak lo zauden demboran — hogoita hamabiek zer lantto pollitak igorri dauzkuten... eta zer sarittoak irabazi dituzten! Gogotik salatzen dauzkitzuegu andereen andereak: Agnes Etchegoin, berrehun libera; Gracie Labrouche, ehun eta berrogoita hamar libera; Bernadette eta Adeline Zaldumbide, ehuna libera; Marie Cachenaut, Madeleine Etcheverry eta Anne Marie Irigoyen, lauetan hogoita libera; Michelle Noblia, Madeleine Camadro, Micheline Mongabure eta Maite Picabea, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena, Jeanne Loustau, Monique Larronde, Marie Etcheverry, Pierrette Amestoy, Thérèse Mouesca, Maite Dendaletche, Carmen Olçomendy eta Marie-Thérèse Olaizola ...; Gora Camboko neskak! Kuku muthikoak!

13/

Ezpeleta

Duela bizpalau urthe Ezpeletako haurrak den gutieneko bat hemen nusikatu gintuetalakotz, asto churiarenak eta beltcharenak aditu gintuen gerochago. Aspaldi bakeak eginak ditugu orduko partidekin. Funtsean Ezpeletarrek arrazoina zuten. Mende zaharretan gazteluko jaunak beren lekhuan ezarri eta, zertako utziko gintuzten nausitzerat? Eskualzale bezala nimbera izan ditake Duvoisin, David eta Daranatz batzuen herrian! Adichkideak, hainitz urthez, agian! Eta naki duzue zerbeit salatzea? Ez dugula gehiago Ezpeletarrez dudatzen! Herririk ez da fende arauka aurthen lan gehiago igorri daukunik! Hogoita zortzi, eskoletarik; eta hamabortz, „cours ménager" delakotik. Gora beraz Ezpeleta! Gora Ezpeletako buruzagiak! Gora berrogoita hiruz haurrak! Bainan gora guziz saria irabazi dituztenak! Huna lerro-lerro: Claire Hiriart, berrehun libera; Monique Andueza, ehun eta berrogoita hamar libera; Claire Miqueltorena, Marie-Thérèse Deharce, Pierre Itoiz eta Jean Azpiroz, ehuna libera; Elisabeth Hiriart, Lucie Pelen, Helene Inthamoussou, Beatrice Hargain, Thérèse Elhalde, Josephine Aguerre, Martin Etchebarne, André Darraidou, Maite Aguerre, Charles Mundutegui, Gabriel Béréterbide eta Helene Miqueltorena, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Maite Etcheverry, Gracie Etchegaray, Clemence Amestoy eta Marie-Jeanne Parachuri. Eta mila gorazintzi Erroman aurthen izan den gazteria maitagarriari, gerochago Donaichtin delako gaztainen phesta hartan ikusiko ditugulako esperantzarekin! Chiminoa, Frenzako chimino hura, arras lakhetua omen da Donaichtin. Eta badakizue nork lakhetarazi omen dion gehienik? Serora batek ....., tllo!

14

Makea.

Ez da bere herriko-etchea bezen zaharra Makeako auzaphez jauna : Eskualzaleen-Biltzarreko buruzagietarik zenbeit aise orhoit dire jaun horren izena hemen berean duela zenbeit urthe ikusirik eta saristaturik ! Eskualduna ethorkiz, eskualzalea gure gatik, herriko ohidurak maite ditu beraz. Horra nola zenbeit urthetarik eskual ikusgarri batzu ikus detzazkegun Makean ! Pindar bat aski da su handienaren phizteko. Horra ere zertako urthe guziez tiroa bezen chuchen Makeako haur gehienek beren lanttoak igortzen dauzkuten. Orok auzaphezgorat heldu gogo othe dute beraz ? Ez, ez. Zertako beraz ? Ori, puska bat eskuararen amodioz, eta bertzea partea sos batzu irabaziko dituztelako esperantzan ! Zenbeitek bederen zerbeit ukhanen dute aurthen ere. Nork ? Ori, huna berehala : Marie-Anne Etchegaray, ehun eta berrogoita hamar libera ; Albert Duhart, Léon St Esteben eta Martin Goyenetche, ehuna libera ; Yvonne St Esteben, Françoise Larre, Gilberte Ithurralde, Jean-Louis Mendilahatxoa, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Felicie Larre, Michel St Esteben, Marie-Claire Bidegaray, Jean-Pierre Etchegaray eta, bati salbu, bertze guzieri. Bai, bati salbu. Huni iduritzen zaio ez dela bizian hainitz beharturen eskuaraz ! Nola dakizu, gaichtoa ? Ahal diren mintzaira guziak ikasi behar dire. Galde zozu zure jaun auzaphezari ! Hari eta eni italianoa nola etzitzaukun baliatuko duela bizpalau ilabete Erromako itzuli batean ! Hamarretan beharti zauzku Afrikan gaindi ibilia den Chemartin bat, eta guziz errotik jakintsuna den Donaichtiko jaun erretor ona !

Mugerre.

Ez dakitenek nahi dute hemen zerbeit erran dezotegun; ez guhaurek frogatu dugulakotz eta ez ere gure gain hartuz, bainan duela ehun urthe Bardozen erretor zen Hiribarren famatuak argitaratu liburu batean irakurtarik ?:

« Mugerren bada jende asko gisetarik »...

Horra. Bainan aphezari dolutu balitzaio bezala, berehala huna zer erraiten duen:

« Bainan buruzagiak dire hautatarik ! »....

Eta Alta, orduan hala baziren, badakigu hala direla orai ere. Eta guziz badakigu, Baionatik hurbilsko izanagatik eta beren egiteko gehienak Baionesekin izanik ere ez direla nihorik kaskoindu, eskuarari atchikitzen diotela bethi errotik ! Gora beraz Mugerreko jaun erretor erne bezen ona, eta gora Maiharin andere errientsa ! Bethi emazue khar berarekin mintzaira guzietan eder eta harrigarrienaren alde. Haurrek ez dute deusik galduko. Eskuara maitaraziko diozuelakotz, erdara ez dute gutiago eta gaizkiago ikasiko : aspaldi frogatua den egia da. Eta horren gainerat Mugerreko haurrek urthetik urtherat zenbeit ~~sos~~ irabaziko dituzte Baionarat doazilarik ñoña onkto batzuen erosteko. Huna aurthen nork zer irabazi duen : Jacques Lacroix, ehun eta berrogoita hamar libera ; Isidore Michelena, Madeleine Amiano, eta Jean Haran, ehuna libera ; Marie Mendibourre, Maurice Anetas, Genevieve Malharin eta Jeanine Haran, berrogoita hamar libera. Ohorezko aiphamena René Mouchico, Jean-Pierre Elissalde, Juliette Courtiague, Robert Elissalde, Monique Etcheverry eta Jean Mouchicori ;

Eta Agerreko eskualzaleak ez deusik gabe uzteko, André Ospital gure diruzainak ehun liberako bat igorriko dio Joseph Mihurari. Aurthengo lagunak etzaizko achoinerat heltzen !

16/

[Komentuetako ikastegietan.]

Arras ikastegi ezagutuak dire Uztaritzen Sn Joseph, Angelun Stella Maris, eta Baiònan Largenté. Lehen aldikotz langileak igorri dauzkute aurthen. Agertzeko on dire segurki. Egia erran aspaldi ezagutzen gintuen zenbeit, beren herrietan bethi lehentsuetarik baitziren! Ikastegia ez dire sobera anderetu, eta ez daukute espainen puntatik ihardetsi: « Ez dugu gehiago zuen Eskuararik nahi! » Gora Uztaritzeko, Angeluko eta Baiòna langile horiek beren sariekin, eta gora serora irakasle saindu(a)k!

Uztaritzen : Henriette Biré, berrehun libera:
~~Marie Urkia, ehun eta berrogoita hamar~~:
Antoinette Mendiburu, ehun:
Michel Laxague, ehun:
Louise Etchebest, ohorezko aiphamena.

Angelun : Marie Urkia, berrehun libera:
Cecile Colomer, ehun eta berrogoita hamar:
Monique Oçafrain, ehun:
Thérèse Colomer, ohorezko aiphamena:
Louise Oçafrain, ohorezko aiphamena

Largenté : Maite Carrère, berrogoita hamar libera

Izen hautan lehena orok ezagutzen dute: Chalbador pertsulari handiarena da. Gora Chalbador! Baratzean lili ederrak baditutzu! Gora ere Henriette! Emazu bethi beretik!

1.54

17

Bachenbarn

Aiherra.

Aski hurbil dugularik Aiherra, urhatsek ez gaituzte ardura harat erematen. Batere ez dakigu beraz zertan den Belzunzatarren gaztelu zaharra. Semperen bertze gaztelu famatu bat bezala, beldurra dugu lurrerat doala Aiherrakoa ere. Lastima da. Oraiko jendeak ez diote gehiago atchikitzen orhoitzapen ederreneri! Hutsean dire segur Aihertarrak gaztelua hola debalde utziz. Bainan, bederen, gazteluko harri zaharrak ez badituzte aski maitatu, bada harri bat maite dutena: Eskual-Herria chutik daukan harri-nausia, Eskuara! Eta hauregi urrhetik urrherat ez diogute bietan galdetu behar Eskualzaleen Biltzarreko lanttoak egin detzagutez! Ederki hori, haurrak. Agian ondotik ethorriko zaizkitzuenek eskuararen amodio bera ukhanen dute ... eta gure ondoko burazagiek sariztatuko dituzte, guk zuek egiten zaituztegun atsegin berarekin. Kantoinamenduko jaun aphezetan graduz berritan goratu den zuen jaun erretorak, gure partez, huna nor eta nola sariztatuko zaituzten aurthen: Martine St Martin eta Jean-Baptiste Darraidou, ehun eta berrogoita hamarna libera; Andre Martinon, Paulette Baptiste eta Martine Martinon, ehuna libera; Bernadette Martinon, Jeanine Duguine eta Marie-Gracie Durruty, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena, Jeanine Duguine, Marie-Jeanne Duhalde, Jeanine Durruty, Antoinette Camino eta Marie-Thérèse Larçabal ....

18/

Doneztiri

Doneztiriko haurrek ez dakite naski zer den mendigoizalea: hitza berria da, bainan ongi asmatua. Mendigoizalea, mendiz mendi ibiltzea lakhet duena da. Frango bada Eskual-Herrian eta Eskual-Herritik kampo, guziz Angleterrako muthil eta neska zango luze batzu. Hainitz gutarik hurbilago, mendigoizalea da Jean Defos du Rau, Bordeleko ikastegi batetako buruzagietarik. Baionan egona, eskual mendi eta mendichka gehien gehienak, oro ez bada, ezagutzen ditu. Garralda eta Eltzarroze Doneztirin, bertzeak bertze, eta "Pyrénées Basques" delako liburuan aiphatzen ditu: ikusi behar omen dire. Horra nola ondoko egunetan zer-nahi arrotz kausi ditaken Gerezietatik Doneztirirat, eta Doneztiritik Armendaritzerat. Eta orduan ikusazue zer diren Doneztirin! Mendiek holako eskual usaineko izenak dituztelarik, han ibiliko diren Angles.... zango luzek zer erran lezakete eskuararik ez baliote bidean haurreri aditzen? Haurrak, ederki badakizue: ez lotsa mintzatzeko. Huna haatik, beren sariekin, hobekienik ari direnak: Pierre Landagaray, ehun eta berrogoita hamar libera; Guillaume Aguerre, ehun libera; Marie-Jeanne Duhart, ehun libera; Michel Bonetbelche, Marie-Thérèse Bonetbelche eta Marie-Alice Sorhouet, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Pierre Jaureguiberry eta Gracieuse Elizagoyeni.....

19/

Donamartiri

Herriari Donamarti erraiten badiote hainitzek Donamartiri hobeki zauku, bainan bakhotchari haizu zaio nahi duenaren erraitea: ez du balio hortaz bururik haustea! Donamartirin bada mendichka bat dena gisu, Castelar izena duena. Castelar, gaztelu-larre, tour en ruines erdaraz, dio begien aintzinean dugun liburuchka berri batek. Hortaz ere ez du balio kalapitan hastea! Delako Castelar horren erraiştan dire Oxozelhaieko leze famatuak. Egundaino gure mila harat-hunatetan ikusi ditugun leze choragarrienak! Brichtan da, bereziki udan, mundua eta munduan ibiltzen dela horien ikusten, Garraldan eta Eltzarrozen dabiltzan muthil eta neska zango-luze angleses bertzalde. Atze horiekin Doneztirin orok erdara kiskun-kaskun bat bederen ikasia dute, bainan ez dire eskuarari ukho egitekotan. Aintzineko urthe batzuez baino lan pollitagoak igorri dauzkute haur gehienek: emazue hor, gaichoak, luzez ziabaz dezazuen aurthen bezenbat sari. Beha sail eder huni: Catherine Larramendy, berrehun libera; Maite Arotzarena, ehun eta berrogoita hamar libera; Jean-Baptiste Garat eta Nicole Iribarne, ehuna libera; Anne-Marie Pagadoy, Jean Ourthiague, Renée Gestas eta Paulette Etchegaray, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Leonie Erguy, Antoinette Etcheverry eta Veronique Mendiburuiri...

Eta zu, jaun erretora, zer zautzu Donamarti eta Donamartiri horietaz?

Amorotze

Amorotze bere chokhoak zaindu behar lukela iduri du, „.. zaindu bederen frantchimankeria zozo baten kontra! « moi jé lé sais murrusker beaucoup le francé! » hauřrak ez erranik, ama choratzen omen da! Eta hori, ederki dakien eskuara utzirik! Bada, Amorotzen ere hortarat zoafila giñaukan, jaz ez baiginuen hirur langile baizik ukhan: Pierre Etchart, Anna Beloscar eta Lousette Amestoy: berrogoita hamarna libera ukhan zuten. Chokhoak egin ez duena, sosaren amodioak eginen othe du? Agian ba, Lousette Amestoy mandatari. Aurthen Lousettek hamabi lagun bildu ditu eta orok arras lan pollitak igorri dauzkute. Lousette Amestoy, ederki hori! berrehun libera igorriko dauzkitzu gure diruzainak, bere baratzeko lili pollitenarekin. Elisabeth Chamalbide, eta Marie-Jeanne Fordin aberastuko dire ehuna liberaz: aldiz berrogoita hamarna libera ukhanen dute Jean-Louis Urruty eta Françoise Chamalbidek. Ohorezko aiphamena bertze guzieri: Denise Baladé, Gabriel Urruty, Françoise Amestoy, Bernadette Harispoure, Michel Chamalbide, Jean-Louis Urruty Helene Ascarrain eta Joseph Urrutiri. Sosaren orde, « honos alit artes »: ez dugu guk erraiten hori, Cicéron batek aspaldi errana zuen. Eta ... egia da! Egia handia!

Aldude

Bailian bazkari ontto bat egin ondoan, Adiskidea, nahi dituzu sabela bezala begiak eta gogoa ase? Sargigneko-bizkarrerat zoazi. Bizpahiruz oren beharko dituzu ba naski joaiteko, bainan balio du. Oi, handik zoin ongi ikusten diren Aldudeko etche guziak, han hemenka landatuak, batzu bertzeak baino churiago: ikusten ere Urepeleko eta Baztaneko mendi-handiak: eta oro baino gorago ikusten Hauza, punta Espainian. Bainan beha huni: ez baduzu errebelatu nahi, har zazu lagun bat. Eta nola Georges Lacombe eskualzaren zenaren arabera ez baita Bachenabarren Aldudeko eskuara baino pollitagorik, har zazu Henri Itzaina. Bazinaki zoin ederki ari den. Henri orori nausitu da aurthen gure zoin gehiagoetan eta ... berrehun libera irabazi ditu: erdi urririk ethorriko zautzu beraz. Nechka izanagatik arras bidekaria omen baita, lagun hauta zinuke orobat, eta aski merkea, Emilie Arambel. Hunek ere ederki badaki eskuara, ehun eta berrogoita hamar libera irabazi dituenaz geroz. Marcel Gariador, Noël eta Jean Apesteguy ere lorietan ethorriko zaizkitzu, guk aurthen saritzat eman dioguten sos ttipian: ehuna libera. Christiane Urrutia, Catherine Etchenique, Jeanette Erramouspe, Marcel Laxague eta Bernadette Bide ere ez litake lagun tcharrak, ohorezko aiphamena ukhan dutenaz geroz. Bainan laguntzat etzazu othoi har jaun erretora: gizon ona da segurki, eskuara badaki, bainan begi tcharrak ditu mendiko!...

Behauze.

Harrigarri da, ... bainan egia: bi urthe du doidoia gure Eskual-Herria ezagutarazteko « Guide Bleu » delako liburuchka osatu eta errreberritu duela Gilbert Houlet halako omeneko jakintsunak. Hain jakintsuna othe da? Ez aski bederen! Ez daki Behauzerik badela ere Eskual-Herrian. Ba, jaun maitea, bada Behauze: gure herrichka polliten-pollitenetarik da, bideberrietarik urrunsko bake eta ichiltasun osoan bizi, gazteria zintzoenarekin, eskualdun kalonje maitagarri eta chaharrenetarik bat gidari .... eta aurthen Eskualzaleen Biltzarraren lanttoeri lorietan lothu diren hamalau haur pollitekin! Haurrak, huna nork zer irabazi duen: Pierrette Dahau, Marie Rose Plachot, Alice Hontas, ehuna libera; Marie-Jeanne Baladé eta Suzanne Plachot, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Marie-Louise Larralde eta Marie-Jeanne Berriari....

Uhartiri.

Hirur langile doidoia Uhartirin aurthen. Ez bat gehiago, ez bat guttiago! Hirur, lehengo hamalau, hamabortz, hamaseien orde! Ez ahal ditu bertzeak Lohitzuneko aireak jo? Hain gaichtoa ahal da Lohitzuneko airea? Ez dakigu segurki, bainan huna egia: Eskualzaleen Biltzarrak ez du egundaino — egundaino gero! — lantto bakhar bat ukhan Lohitzunetik! Ohore beraz kutsatu ez diren hirur Uhartiriarreri. Hirur langile, hirur sari: Michel Jaureguy, ehun eta berrogoita hamar libera; Jean Pierre Etchemendy, ehun libera; Marthe Etchemendy, berrogoita hamar libera.... Eta jaun erretorak Uhartiriko bazter choragarrian ez dezala arras ahantz Laphardi eta Laphurdiko adichkideak!....

23/

Arberatze

Erdarazko erran zahar hau bada « ez duela ainhara batek egiten primadera ». Artean erraiteko, aurthen ez dute ehunek ere egin! Bainan herri batean gizon batek egin dezake haatik — gizon bakhar batek — herri harek eskuara atchikitzea edo uztea. Arberatze ez dute orai arte Eskualzaleen Biltzarraren deiek hainitz kilikatu eta higiarazi. Joan da ba harat erretor Diharce jaun aphez eskualzalea, berehala iratzarri dire nagiak eta errotik eskualdundu Kaskointzerat zoazin haurrak. Badakizue berrehunbat arima doidoia dituen herrichka hortarik zenbat langile ethorri zaukun aurthen? Hamalau. Jende arauka, Eskual-Herriko gehiena mentaraz. Gora beraz Arberatze eta milesker, jaun aphez eskualzalea! Haurrek ez dezaken urrikirik ukhan, huna nola sariztatu ditugun: Jean-Pierre Lapouble, ehun eta berrogoita hamar libera; Jean-Louis Lapouble, Gabrielle Bourrus, Jacqueline Hutcotte eta Marie-Claude Etchepare, ehuna libera; Roger Castera, Marie-Louise Lapouble eta Marie Altchourrou, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena bertze guzieri ....

Gabadi

Ez dugu ezagutzen Gabadi: ez dakigu nun den. Ba haatik lehen zer-nahi sorgin ichtorio gertatu dela han gaindi! Horra zertako ez dauken bihotzak behinere eman harat joaitea. Sekulan Gabadirat mentura tzen bagine ondoko ilhabetetan, badakizue zer nahi genuken lehen-lehenik? Thérèse Etchepare ichtorio zahar erraiten aditu! Bat aurthen igorri dio Eskualzaleen-Biltzarrari karik ahotzak ezin utzia! Andre Ospital gure diruzainak igor baletzo ehun libera!

Suhuskune.

Eskuara aberatsa dute Suhuskunen eta urthetik urtherat bethi zerbeit ikasten dugu hango haurrekin. Aurthen zer ikasi othe dugu, bada? Chori baten izena. Louis Dassance gure adichkide jakintsunarekin, duela hogoita zenbeit urthe, "Gure Herrian" guhaurek zer-nahi chori izen agertu ginuen: hemen gaindi ikusten diren arrano, belatz, miru, bele, uso, etchechori eta oro, gure ustez, kopetako izerdi ederraren gostuz! Oro? Ez, eiki: Suhuskunen papo-urdinak badirenaz geroz! Suhuskuneko haurren lanak eskuetan ibili dituen eskualzaleak irri egin omen du, berak erran daukunaz. Ez da hor irri egitekorik. Ile beltzenak demborarekin churitzen diren bezala, nork daki papo-gorriak ez diren urdintzen? Aspaldi du ... gure demborak! Dena dela, papo gorri eta papo urdin, sariak irabazi dituzte Suhuskunen ere, oro tan bezala. Huna nork zer: Marinette Espellet, (aspaldiko ezaguna, hau) ehun eta berrogoita hamar libera; Marie-Jeanne Diriart, Marie Lahargou eta Jean Bidart, ehuna libera; Helene Bidart, Marianne Arrostegui, Gracianne Mindurry eta Marie-Thérèse Espellet, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Marguerite Etchebehere, Marianne Ithurralde, Marie Etcheto eta Anne-Marie Curutcheti.
Larramendy koplariari haurrak hola handitu othe zaizko, bat bakharra ez gehiago eskolan ibiltzeko ... eta harekin goraintzi bat igortzeko?

Garruze

Errechtasun guziak baditugu orai ibiltzeko. Bere ona badu segurki ibiltzeak, bere tzarra ere ba. Ez da nihor nihun gehiago kokatzen. Horra nola hiltzen ari diren herriak. Jada erran ditake hilak direla gure merkatu ederrak. Hilak, feiriak. Hilak Brichti famatuak berak. Harat hunatek jakitate gehiago galdetzen baitute nahi eta ez, oro erdara eman dire eta sortu orduko haurreri erdara hori ikasarazten zaiote. Ederki litake, hainitzetan ez baliote eskuarari ukho egiten! Huna haatik egia: gure arabera Garruzen orai baino beherago izan dire horri buruz! Zerk egiten badu ere hori, eskerrak Jainkoari eta Garruztarrak, goazen aintzinat. Bethi aintzinago! Aurthengo bederatzi haur langilen orde, helduden urthean izan ditela hamalau edo hamabortz. Anhartean, aurthengo lan pollitarentzat Marguerite Mathieu aberastuko da ehun eta berrogoita hamar liberaz; Lucie Goyheix, ehun liberaz; Henriette Apataberry, Marie Claire Heuguerot eta Rene Aguerre, berrogoita hamarna liberaz. Ohorezko aiphamena Françoise Heuguerot, Jean-Pierre Apataberry, Gracianne Vigneau eta Gaby Harislur-i. Eta gora Garruze!

26/

Ibarla.

Mende zaharrez — ondikotz, erdaraz — mintzo direen liburu guzien arabera, norbeit ziren Ibarlako jaunak. Ba omen zakiten bederen Espainiarat Ibarlan gaindi zoazin beilari dohakabe batzuen ederki biphiltzen, „ onez onean edo bortchaz! Bada, nahuzue zerbeit erraitea? Ibarlako ozako jauna — jaun erretora, hots! — arras langilea da eta eskola handia badu. Nola etzaio ba gogoratzen, Bertrand Ezdozaincy jaun aphez zenak Michel Garikoitzez egin zuen bezala, itsas-hegiko eskuara pollitean delaf jaunez zerbeit argitaratzea? Haurrek maite dituzte tokiko gora-behera zaharren chehetasunak: lorsetan irakur letzazkete zaharreri helduden artho churitzekoan! Ibarlan hamar haur bederen badire sosaren puntan liburu berria eros lezaketenak! Ea, bada, adichkide jauna? Saltzearen errechteko nahuza sala dezazugun zoin haurrek sosa eskuan duken liburuarentzat? Aurthen Eskualzaleen Biltzarreko sariak irabazi dituztenek: Marie Arthaberrok baditu ehun eta berrogoita hamar libera paper ederretan; Raymond Parrestegny eta Jean-Baptiste Berrouetek, ehuna libera; Annie Pessans eta Andre Pessansek, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena eman diogute — bainan sos eskasez bakharrik — Marie-Jeanne Berhouet, Victorine Borrouet, Jean-Marie Hourcade eta Jean-Baptiste Etcheverry ...,

---

27/

Irisarri

Langile gehiago han, gutiago hemen, horra zer gertatzen zaukun egundainotik urthetik urtherat, harek edo hunek osoki huts eginez artetan. Ez du horrek batere erran nahi eskuara gehiago mintzatzen dela edo gutiago nihun. Irisarrin ez badugu zortzi langile baizik ukan, zenbeit urthetako berrogoita zenbeiten orde, haizeak lekhu tzarretik bukatu du bakharrik. Bainan erran dezagun haatik berehala aurthengo langile bakharrak ongisko arizanak direla: Marie-Jeanne Etchebehere bereziki bere « Sagu hitzalearen » ichtorio pollit-pollitarekin. Ez du haatik harrik egin, berrehun libera ukhanen dituenaz geroz ondoko egunetan. Marie Etchebaster, Marie-Agnes Curutchet eta Yvette Sarrasqueta ttipiek irabazi dute ehun libera bana eta, gutiz ez utz, berrogoita hamarna libera Jeanne Etcheberry eta Victoire Amestoyek. Ohorezko aiphamena Marie Etchebehere eta Jeanine Etcheverriri. Zortzi langile, zortzi neskha. Nun othe ziren muthikoak? Pilota plazan ala dantza-jauzien ikasten?

Ortzaize

Ortzaiztarrek balakite Jainkoak aintzinean eman
ontasunez baliatzen, oro aberats litazke terrepente. Bizpalau
uda aski. Nola othe? Asto eta mando tropa batzu haziz,
Angles zango-luze mendizaleak Jarrako zazpi ehun eta
lauetan hogoita hamabortz metren puntarat eremateko.
Hain bichta choragarria da handik Bachenabarrerat,
Chory jaun misionestak erran daukunaz! Ortzaizeko jaun
bikario maitagarriak Azkaine bere sor-herrian haurrean
ikusi eta ikasi baitu zer uzten duen mendiak baliatzen
dakienari, zerbeit egin dezala lehenbaitehen, urrungo
beharrimotz batzu aintzintzerat utzi gabe. Ortzaizen oro
gal litazke orduan, eskuara barne... eta haurrek ez letzaz-
kete urthetik urtherat, jostetan, Jainkoak dakien sosketak
irabaz! Huna aurthengo irabazleak lerroan beren sosarekin
edo aiphamenarekin: Jean-Baptiste Hauscarriague, berrehun
libera; Marie-Claude Orpustan, ehun eta berrogoita hamar libera;
Josette Ardohain, Catherine Etchebehere eta Andre St Esteben,
ehun liberako bana; Maurice Etchenic, Etienne Dagorret;
Pierre Uhart, Danielle Iroanday, Etienne Iroanday eta
Therèse Dagorret, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aipha-
mena León Saldubehere, Marie Antcharte, Arnaud Ansola,
Marie Ansola, Jean-Michel Urbizu eta Henri Ariztizabal...

Heleta

Orai arte Heletan etzuten beren merkatu murritz eta phestaberri ederrak baizik jendearen biltzeko. Bertzerik atcheman dute: mendia. Moinemendi bere hirur ehun eta hiruetan hogoita hamalau metra eskasekin! Agorrilaren lehen egunetan zer mundua ez da ibili han „rallye" delako baten estakuruan, angles, italiano, portuges eta frantses, larru zuri eta larru gorri! Arras bichta ederra omen da Moinemendin, bai Bachenabarreko alderat, bai Chuberoko alderat. Eskuara hain ongi dakien eta hain maite duen "So Egileak" begi onez behatu othe diote kampotiar horieri? Ez othe dituzte Heletako eskualzale ttipiak lillurikatuko .... eta erdararat sobera lerraraziko? Lastima litake. Halako eskuara pollita dute! Urthe guziez zer sosa ez diogute eman behar! Huna aurthengoa, irabazle guzien izenekin: Marie Iribarne eta Felix Noblia, ehun eta berrogoita hamarna libera; Romaine Etcheverry, Fanny Noblia, Paul Duhart, Jean Pierre Aintciart eta Gracie Bidegorry, ehun liberako bana; Eulalie Arhancet, Jean-Pierre Etcheverry, Micheline Arla, Jean Etcheverry, Marie Salla, Pierre Uhart, Marie-José Camou, François Amestoy eta Jean-Baptiste Belly, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Germaine Arocharena, Leon Martinon, Jean-Pierre Larre, Julien Poeydessus, Léonie Récalde, Paul Bon, Marie-Jeanne Arotzarena, Jean-Baptiste Mendisco, Anne-Marie Curutchet eta Marie Etcharti ....

30/

Iholdi.

Michel Garikoitz sainduaren ikusgarrian hainitz ikusten eta aiphatzen da Iholdi : merezi du. Bachenabarre guzian ba othe da herri aberatsagorik? Aberatsagorik orhoitzapenez eta oroz? Iholdin izan dire eta badire legegizon handiak (Mihura); aphez jakintsun eta hedatuak (Pascal Elissalde), aphezpiku famatuak (Jean d'Olce)! Iholdin badute jaun erretor bat, handi bezen ona eta nihun parerik atcheman ez lezoketena, pertsulari gaitzak nun-nahiko gehiagokoetan agertzeko on direnak, kantari ederrak ligin sariak ukhan dituztenak ...., eta, horien guzien gainerat eskualzale ttipi batzu nihungoeri zorrik ez diotenak! Badakizue aurthen azkenik ortzegun batez, beren jostetak utzirik, hogoita zazpi muthiko eta neckka bildu direla gure lanttoen hain polliki egiteko! Aurthen ere zer sariak, beraz? Eliza zaharrean ezkila dorre berri baten egitekoa kasik! Beha : Pascal Pochelu, berrehun libera; Marie Pecotchea eta Antoinette Pochelu, ehun eta berrogoita hamarna libera; Marie-Jeanne Bordarrampe eta Gracy Etchart, ehun liberako bana; Anne-Marie Salles, Marianne Etchart, Rene Haran, Jacqueline Pochelu eta Pierre Hayet, berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Zephirine Massolo eta Jeanne-Marie Legartori. Bertzeak ozka bat beherago ezarri ditu jaun ikhertzaileak, bainan «fabricando fit faber». Nihor ez da jakitatearekin sortzen....

31

Izpura.

Ez du balio Garazirat joaitea Arradoiko itzulia ez egitekotz. Dembora guti behar da puntarat joaiteko, oren bat eta erdi, hainitz izertu gabe, eta puntatik Garazi guzia ageri da, gaineko abarretik behereko abarrean ageri den ohantzea bezen gustagarri! Aro ederrarekin oi zer begien asea! Orai, nahi duzue mendigoizale bat sinhetsi, Defos du Rau baitu izena? Izpurako aldetek har zazue mendia. Baditake ez den bide errechena, bainan ederrena da: nekhea balio duen bidea, segur! Eta gero, Izpuratik abiatuz, han edo hemen kausi dezakezue ...urthe guzietako gure eskualzale ttipittoetarik bat edo bertze. Loria baita, egiazki eta egiazki loria, Eskuara hoin ongi dakiten haur batzuekin mintzatzea! Eta nahi duzue guk hemen zerbeit aithortzea? Euskalzaindia aspaldi ezagutzen dugu, beraz euskalzaleak. Bada, Izpurako haurrak edozoin euskalzan bezen trebe dire eskuaraz, zenbeit baino trebeago menturaz! Horra zertako urthetik urtherat galtchagorri ikusten dugun Izpurako sariak ezin partituz. Oro hain ederki ari! Kasik ederkiegi! Dena dela huna urthengo gure erabakia: Jean-Baptiste Pauberena, ehun libera; Pierre Irigoin, Dominique Daguerre, Jean-Pierre Argain, Anna Etcheverria, Jean Pierre Bidart eta Marie Reca, berrogoita hamarna libera.

32/

Arrauta

Arrautako herria nun den eta zertsu den jakiteko, adichkide irakurtzailea, ez duzu zeren liburuen ondotik ibil: zaharrak bezen mutu daude berriak. Salbu Daranatz jaun kalonje zenaren liburu bat. Harek ere ez du milagrorik erraiten: daidoia hau, mila zortzi ehun eta hirutik hunat ez dela zazpi erretor baizik izan Arrautan: Burguzahar, 1803-1822; Pagola, 1822-1866; Etchepare, 1866-1871; Horigoyen, 1871-1895; Darate 1895-1899; Montalibet 1899-1938; Irigoin, oraiko jaun erretor alegera bezen ona. Eta ez othe ginuke erran behar, Montalibet zena bera bezen eskualzalea? Urthe guziez ez othe diozkate, chuchen, hainbertze eta hainbertze haurreri Eskualzaleen-Biltzarreko lanttoak eginarazten? Jainkoak baitaki Jainkoak bakharrik, mila zortzi ehun eta hogoita hemezortzitik huna jaun aphez horrek zer sosak sar-arazi dituen herrian? Mila, mila, eta milak. Eta ohorea gainerat. Gora, jauna! Aurthen ere zuri esker Eliane Saffores batek ehun eta berrogoita hamar libera sartuko ditu bere eltze itsuan; Louisette Tissier eta Leontine Loustau aberastuko dire ehun liberaz banaz; Louis Minaberrigaray eta Marie Caillabak ukhanen dute berrogoita hamarna libera. Ohorezko aiphamena Joseph Magouape, Gracie Maillarraincin, Pascaline Jaureguiberry eta Louisette Etcharte.

Bainan zer egin duchu Partarrieu Ketty?
Aintzineko primetan lehen chuchun bethi....

33/

Ezterenzubi

